



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko ekainaren 20an

51 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

—Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Foru Lege proposamena (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

—Jabeldura, PFEZari buruzko egungo Foru Legearen aplikazioari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan erregaien salneurrien igoera saihesteko, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskoletako jantokiek bete beharreko baldintzak arau ditzan, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (7. or.).

—Eskubide sozialen aldeko adierazpen politikoa. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxe berrian Jarraipen Bereziko Espetxeratuaren Fitxategia (JBEF) ereduko modulu bat sortzea eragoz dezan. Akats Zuzenketa (8. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—San Adriángo “Alfonso X El Sabio” Ikastetxe Publikoari emandako dirulaguntzari buruzko galdera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina (9. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

—Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (10. or.).

—Gelazainen kidegoko funtzionarioen arteko merezimendu-lehiaketaren bidez Nafarroako Parlamentuko Gelazain Nagusiaren burutza-postua betetzeko deialdia. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (40. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Foru Lege proposamena**

2000ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste.

2000ko martxoaren 27an, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak erabaki bat hartu zuen Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Foru Lege proposamena tramitatzeari buruz. Erabaki hura 2000ko apirilaren 27ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Argitaratutako erabakian ez zenez berariaz adierazi proposamena onesteko erabateko gehiengoa behar dela proposamen osoari buruzko azken bozketa batean, eta aintzat hartuz 2000ko otsailaren 10eko txosten juridikoa eta Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak 2000ko ekainaren 13an onesteko duen irizpena –zeinak Nafarroako foru zuzenbide zibilaren indarreko bildumako zenbait manuren berariazko aldaketa jasotzen baitu–, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 149 eta 150.

artikuluetan eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 eta 48.2 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, ERABAKI DUGU:

**1.** Ezartzea Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Foru Lege proposamena onesteko –haren irizpena Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak 2000ko ekainaren 13an onesteko du– erabateko gehiengoa behar dela proposamen osoari buruzko azken bozketa batean, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 eta 48.2 artikuluetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 149 eta 150. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko ekainaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, PFEZari buruzko egungo Foru Legearen aplikazioari buruzkoa**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak PFEZari buruzko egungo Foru Legearen aplikazioari buruzko jabeldura aurkeztu du.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 12an egindako bilkuran, jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **JABELDURAREN EDUKIA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak Nafarroako Gobernuari egiten zaizkion jabeldurak arautzen dituzten 179. artikulua eta hurrengoak aplikatuz, PFEZari buruzko egungo Foru Legearen aplikazioari buruz eta UPN eta NDE alderdiek 1999rako hitzartu zuten zuzeneko politika fiskalak egungo errenta kanpainian herritar multzo batzuegan izaten ari den ondorioei buruz Nafarroako Gobernuak duen iritzia jakiteko jabeldura bat aurkeztu du, haren aplikazioak ekarri dituen arazoak ezagutzeko eta konponbide batzuk proposatu ahal izateko.

Gure asmoa denez balizko konponbideek eragina izatea oraingo errenta kanpainian, nekazaritzako kolektiboarekin egin den bezala, jabeldura hau 181.1 artikulua aurreikusitako presako bidez tramitatzea eskatzen dugu.

Aurrekariak

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldea UPN eta NDE alderdiek 1999rako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Legean egin zituzten

aldaketen aurka agertu zen, uste baitzuen aldaketa horiek kalte egingen ziotela gure gizarteko kolektibo askori, kolektibo horiek araubide komuneko lurraldeko beren homologoak baino okerrago egonen zirela eta atzerapauso handiak emanen zituztela gure komunitatean lehen zeuden egoerarekin alderatuz gero.

Arrazoi hori eta beste batzuk, legearen progresibotasunean atzera egitearekin eta arlo fiskalean Nafarroaren egoera propioa –zeinean beti aitzindari izan baikara– haustearekin loturikoak, zirela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak osoko zuzenketa bat aurkeztu zion lege proiektu horri, baina egungo proiektuaren guraso diren UPN eta NDE alderdien botoekin atzera bota zen osoko zuzenketa hori.

Eskaeraren zioak

Aurrekoa esanda, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak bere kezka adierazi nahi du PFEZari buruzko Foru Legearen aplikazioak gure komunitatean izan duen eraginari buruz; hain zuzen ere, une hauetan, herritarrek 1999ko errenta aitortpenari aurre egin behar diotenean, argi nozitzen ari dira UPN-NDE alderdien zerga arloko hitzarmenean finkaturiko irizpideak.

Lege horren aplikazioak kalteturiko kolektiboen goitik beherako zerrenda egin nahi gabe ere, oso kezagarria da arau berri horrek nolako eragina izan duen Nafarroako ezgaituen kolektiboan; hain zuzen ere, kolektibo horretakoak aurreko arauarekin baino askoz ere okerrago daude orain, eta araubide komuna duten Espainiako gainerako erkidegoetan tributuak ordaintzen dituzten ezgaituak baino okerrago. Hori dela eta, egoera honek agerian uzten du gizartean sentsibilitate ezarekin lotu beharreko arazo bat dagoela, eta presaz eman beharko geniokeela behar duen erantzuna.

Hala ere, aipatutakoa ez da 1999ko errenta aitortpena egiterakoan aurreko urtearekiko egoera

larriagoan edo okerragoan gelditu den kolektibo bakarra, ez eta antzeko dirusarrerak izan baina Foru Ogasunari joan den urtean ordaindu zuena baino dezente gehiago ordaindu behar duen kolektibo bakarra ere. Nekazarien kolektiboan ere antzeko zerbait gertatu da, eta horren ondorioz Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiari du egoera hori aldatu eta kolektibo horrengan UPN eta NDE alderdiek onetsitako PFEZari buruzko Foru Legeak sortu dituen arazoari konponbidea eman diezaion.

Antzeko zerbait esan daiteke seme-alabak dituzten familiengan eta bereziki familia ugariengan arau horiek izaten ari diren eraginari buruz ere, egungo Nafarroako Gobernuak kide batzuek hauteskunde garaian horri buruz agindu zituztenak alde batera utzita.

Tamalez, denborak arrazoia eman digu, eta gure kritikak eta beldurrak errealitate bihurtu dira. Errentaren gaineko zerga, orain arte, zergadun nafarrentzat araubide komunez zergadunentzat baino onuragarriagoa izan bada ere, gaur egun besterik da: errentaren aitortzea Nafarroan aurkeztea Estatuan aurkeztea baino garestiago atera daiteke.

Bere garaian, Alderdi Sozialistak adierazi zuen ez zegoela bizitzeko gutxieneko bat ezartzearen alde, eta ematen zuen arrazoia zen gutxieneko horrek eragin bera eduki behar zuela zergadunaren tasa marginala edozein izanda ere; hori ez da gertatzen, alegia, zerga-oinarriaren gutxipen bat delako –zerga oinarria tasen eskala progresibo batez zergapetuta dago–. Progresibotasun bera gertatzen da bizitzeko gutxienekoaren kenkarian; hau da, % 20ko batez besteko tasa ordaindu behar duen zergadun batentzat, bizitzeko gutxienekoaren kenkariak, likidazio oinarria gutxitzean, % 1eko edo 2ko kuotaren gutxitzea ekarriko luke (3 milioiko oinarria duen zergadun baten kasuan) Eragin horrek berak aurrezkoa bikoiztuko luke 6 milioiko likidazio oinarri batean. Hona ondorioa: Ogasunak ez du berdin balioesten herritar gutziek bizitzeko behar duten gastua, uste baitu behar handiagoa duela dirusarrera handiagoak dituenak.

Onartzen badugu badagoela bizitzeko beharrezkoa den gutxieneko bat eta gutxieneko hori ez dela zergapetu behar –betiere, Nafarroan kontuan hartu behar dugu bizitzeko gutxienekoa ez dela ez gutxienekoa, ez bizitzekoa eta ez deus–, lortu behar duguna da gutxieneko horren gainean zergarik ez izatea, ez kenkari bat egotea. Eta, beraz, bidezkoa dena da zergapetzearen eskala aldatzea. Hori da eskuinak (UPN-NDE) egiten duen planteamenduaz bereizten gaituen lehenbiziko gauza. Bigarrena da kuotaren kenkariari buruzko

ikuspegia eta kenkari horietan seme-alabek, gurasoek eta beste egoera batzuek (minusbaliotasuna kasu) duten ponderazioa.

Bere garaian, errenta-tarteak 17tik 8ra jaitea ere kritikatu genuen, hain zuzen ere, gure ustez, zenbat eta tarte gutxiago egon orduan eta justizia eza handiagoa delako. Esan ziguten zerga errazteagatik egiten zela hori, baina jakina da herritar gehienek beren Ogasunera edo finantza entitate batera jotzen dutela errentaren aitortzea egitera, eta aitortpen hori eskuz egindako kalkuluak saihesten dituzten bitarteko informatikoez egiten direla.

Argi dago seme-alabengatik kuota kenkarien munta nabarmen hobetu daitekeela; izan ere, 45.000 pezeta, batez besteko % 25eko tasarekin, 180.000 pezetako oinarri-kenkari bati dagozkiola; estatuko zenbatekoa, berriz, 200.000 pezetakoa da lehen seme-alabarentzat eta 300.000 pezetakoa gainerakoentzat. Araubide komunarekiko tributazioan dagoen ezberdintasun hori larriagoa da batez besteko tasa hori handiagoa den neurrian, % 22aren inguruan parean jarri eta ondoren.

Antzeko zerbait gertatzen da minusbaliotasun kasuetan. Araubide komunean, % 33 eta % 65 bitarteko minusbaliotasun batek berekin ekarriko luke oinarrian 850.000 pezetako oinarri-kenkari bat izatea; minusbaliotasuna % 65ekoa baino handiagoa bada, ordea, 1.150.000 pezetakoa da. Nafarroan, dagoen kenkari bakarra kuotan aplikatzen da eta 75.000 pezetakoa da. Aurreko kalkulura itzuliz, % 25eko batez besteko kenkari bat duen zergadun batentzat kenkari hori oinarrian 300.000 pezetako kenkari bat aplikatzearen parekoa da. Horrekin, alderaketa eginez gero, ez dira ezertarako ere kontuan hartzen minusbaliotasun handiko kasuak. Gainera, araubide komunean, oinarriaren kenkari batzuk ezartzen dira, 600.000 pezeta bitartekoak, guraso edo seme-alaba minusbaliatuen kasuan, minusbaliotasuna % 65koa baino handiagoa bada.

Aparteko aipamena merezi dute guraso bakarreko familiek, Foru Ogasunak ahaztu (?) dituenak. Baterako aitortzea egiten duten guraso bakarreko familien gutxieneko pertsonala 900.000 pezetakoa da edo 1.000.000 pezetakoa 65 urte baino zaharragoa denean. Ezgaituen kasuan, 1.500.000 pezetara ere iristen da. Nafarroaren kasuan, ez da aukera hori aurreikusitua.

Aztertu beharreko beste kontu bat da likidazio oinarrian aplikatu beharreko zerga-zamaren eskala da. Estatuan sei tarte dauden bitartean, Foru Ogasunean zortzi tarte daude: % 18tik % 48ra bitartekoa da Estatuko kasuan eta % 15etik %

47ra bitartekoa Nafarroako kasuan. Eman dezagun likidazio oinarrian 3.000.000 pezeta agertzen diren kasu bat: Nafarroan 709.000 pezetako kuota izanen luke eta Estatuan 720.000 pezetako; 2.100.000 pezetako oinarri batean, ordea, 467.500 eta 468.000 pezeta izanen lirarteke, hurrenez hurren; 4.100.000 pezetako kasu batean, 1.017.000 eta 1.034.000 pezetako kuota izanen lirarteke. Alde horiek oso txikiak badira ere –zergadun nafarraren alde–, kalkulu horrek amarru bat du bere baitan: alderaketa zuzena zerga-oinarrien eta ateratzen diren kuoten artekoa da. Ikus dezagun 3,5 milioiko dirusarrerak eta bi seme-alaba dituen familia baten kasua: Estatuan 375.000 pezetako lehen kenkari bat aplikatuko litzateke lan etekinengatik, gehi 1.100.000 pezeta gutxienerako pertsonalarengatik, gehi 400.000 pezeta bi seme-alabengatik. Hona emaitza: 1.625.000 pezetako likidazio oinarria eta 354.000 pezetako kuota. Nafarroan, kasu berean, 1.100.000 pezetako kenkaria aplikatuko litzateke zerga oinarrian, eta 2.400.000 pezetako likidazio oinarria aterako litzateke; kuota, ordea, 542.500 pezetako kuota izanen litzateke, eta horri lanarengatik 95.000 pezetako gutxipena eta bi seme-alabengatik 84.000 pezetako gutxipena erantsi behar zaizkio. Hona alderatu beharko litzatekeen kuota: 363.500 pezeta. Eman dezagun familia batek 4.500.000 pezetako dirusarrerak dituela: arabide komuneko kenkariak berdina izanen lirarteke, eta, beraz, zerga-oinarria 2.625.000 pezetako eta kuota 615.000 pezetako. Nafarroaren kasuan, oinarria 1.100.000 pezeta gutxiago izanen litzateke, 3.400.000 pezeta, eta kuota 821.000 pezeta izanen litzateke; zenbateko horri 95.000 eta 84.000 pezeta kendu behar zaizkio; kuota, horrenbestez, 642.000 pezetako kuota izanen litzateke. Kasu horiek berak baina hiru seme-alaba izanda, 282.000 pezetako kuotak sortuko litzateke (306.500 pezeta Estatuan) 3.500.000 pezetako dirusarreraren kasuan. 4.500.000 milioi pezetako dirusarreraren kasuan, emaitza 531.000 pezetako kuota izanen litzateke Estatuan eta 585.000 pezeta Nafarroan.

Errealitate horien aurrean, beharrezkoa da zehatz-mehatz ezagutzea PFEZri buruzko Foru Legearen aplikazioak benetan izan dituen ondorioak nafar herritarren kolektiboengan, familiengan eta Nafarroako herritarrengan, eta ahaleginak egiteko horiei 1999ko errentaren aitopeneko oraingo kanpainen konponbidea ematen.

Aurreko guztiaz gainera, jendeak ezagutu behar du sistema informatikoak funtzionamendu kaxkarra izan duela, eta horrek arazo handiak sorrarazi dituela aitopena egin dutenengan eta

Foru Ogasunarekin lankidetzan aritu diren bankuentitateengan.

PSN/PSOE alderdiak, bestalde, jakin nahi du Nafarroako 1999ko PFEZaren bilketak noraino nozitu duen hori guztia. Zergak jaitsi badira, bilketa ere jaitsiko zen. Datu horiek ezagutu nahi ditugu, batez ere zalantzak argitzeko; izan ere, herritar ia gehienek orain aurreko urtean baino gehiago eta Estatuan baino gehiago ordaindu badute, non dago zergen jaitsiera hori?

Hori guztia dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak jabeldura hau proposatu du Nafarroako Gobernuak egin duen politika fiskalari buruz eta PFEZari buruzko egungo Foru Legearen aplikazioak izan dituen ondorioei buruz.

#### Proposatzen den jabeldura

Aurreko guztiak, gure ustez, Nafarroako Gobernuari egiten zaion jabeldura hau justifikatzen du, jakin nahi baitugu zein den PFEZari buruzko Foru Legearen egungo aplikazioa, Parlamentuaren Osoko Bilkurak ezagut ditzan 1999rako UPN eta CDN alderdiek hitzartu duten politika fiskal zuzenak errentaren oraingo kanpainen herritarren kolektiboengan, seme-alabak dituzten familia nafarrengan eta, oro har, herritar guztiengan izan dituen ondorioak, eta aplikazio hori xehetasun guztiekin ezagutzeko eta konponbideak proposatu ahal izateko.

Hori dela eta, jabeldura egiten zaio Gobernuari jakiteko ea Gobernuak uste duen egungo arauak, UPN-CDN hitzarmenetik sortu direnak, eragiten ari direla Nafarroako herritarrek okerrago egotea arabide komunean zergak ordaintzen dituzten beste autonomia erkidego batzuetako herritarrek baino; jakin nahi dugu zein neurri aurreikusi dituen Gobernuak egungo arau fiskalek kolektibo ezberdinei ekarri dieten kaltea arintzeko, esate baterako ezgaituen kasuan; zer eragin izanen dituen, Nafarroako Gobernuaren ustez, aipatu legearen aplikazioak seme-alabak dituzten familiengan eta familia ugariengan; zein izan den PFEZa dela eta bildutakoaren bilakaera, gorakoa nahiz beharrezkoa, indarra izan duen lehen ekitaldian aurreko ekitaldiarekin alderatuta; zein arrazoi izan diren zerbitzu informatikoak ongi ez funtzionatzeko; eta zein diren PFEZari buruzko Foru Legearen aplikazioak zenbait kolektiboengan, familiengan eta herritar nafarrengan 1999ko errentaren aitopenean sortu dituen arazoak konpontzeko egin diren proposamen orokorrak.

Iruñean, 2000ko ekainaren 8an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## **Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuia premiatzen da behar diren neurriak har ditzan erregaien salneurrien igoera saihesteko**

### *FORU PARLAMENTARI JOSE M<sup>a</sup> AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA JAUNAK AURKEZTUA*

Foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuia premiatzen da behar diren neurriak har ditzan erregaien salneurrien igoera saihesteko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaikiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Jose Mari Aierdi Fernández de Barrena jauna, EA/EAJ Talde Parlamentarioaren barnean dagoena, Ganbara honen Erregelamenduen arabera, honako mozioa aurkeztu du, eztabaidatua eta bozkatua izan dadin.

Erregaien artean B gasoleoa edota nekazaritzarako kokatzen da eta gasoleo honen prezio igoerak egundoko eragin kaltegarria izan du neka-

zaritza ustiattegietan, ekoizpen kostuak handituz eta nekazarien errentak murriztuz.

Soilik 1999ko urtarriletik 2000ko maiatzera arteko epeari dagokionez, nekazaritzarako gasoleoak % 60ko igoera izan du, 1999ko urtarrileko 43,8 PTAtik aurtengo maiatzeko 72,52 PTARA pasatuaz litroa.

Ekoizpen kostuen areagotze honek gure produktuei zailtasun handiak dakarzikie gainontzeko herrietako produktuen aurrean konpetitzeko eta ezinbestekoa da egoera hau erregulatzea, batetik, azken urteotan hainbeste ahaleginez irabazitako merkatu kuota ez galtzeko eta, bestetik, nekazarien errentak mantentzeko.

Horregatik, Nafarroako nekazaritzaren aldeko defentsan arituaz, Parlamentu honek honako ebazpen hau onartzen du:

Nafarroako Legebiltzarrak Estatuko Gobernuari zera eskatzen dio:

1.- Beharrezkoak diren erabakiak hartzea, nekazaritzarako erregaien gehiegizko prezio igoerak ekiditzeko.

2. Hartu beharreko neurrien artean, Erregaien gaineko Zerga Bereziaren funtzezko murrizketa ezartzea, nekazarien errentak mantentzearen alde arituaz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskoletako jantokiek bete beharreko baldintzak arau ditzan**

### *NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskoletako jantokiek bete beharreko baldintzak arau ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztzen ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiki baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Parlamentuko Mahaiari hurrengo Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Gure komunitatean gertatu diren aldaketa sozialen ondorioz, emakumea bizi ekonomiko, sozial eta politikoaren esparru guztietan sartu da. Horrekin batera, seme-alabei arreta egiteko eta haiek zaintzeko eginkizun tradizionalerako gero eta beharrezkoagoa da erakundeek familiari laguntza ematea. Horren ondorioz zabaldu dira ikastetxe gehienetara eskola-jantokien zerbitzuak.

"Zerbitzu osagarriak" izenekoen barruan, LODE legeak 1985 urtean diseinatutakoari jarraituz, jantokiak "ezinbesteko zerbitzu" izatera pasatu dira; horrenbestez, ikasleak hezteko lan garrantzitsuaz gainera haiek elikatze eta haiengan nutrizio eta elikadura egokiko eta higieneko ohitura osagarriak sortzen laguntzeko eginkizuna hartu dute ikastetxeek.

Derrigorrezko irakaskuntza mailetan Nafarroako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako eskola-jantokiak arautzen dituen uztailaren 24ko 246/1991 Foru Dekretua indarrean sartu zenetik, agerian geratu da azken urte hauetan arazo bat gertatu dela jantokien sare bikoitza sortu delako:

alde batetik, "eskualdeko jantokiak" daude (arrazoi ezberdinengatik bizitokiz aldatutako haurrak, gutxiengo etnikoetako haurrak edo aurkako egoera soziala bizi dutenak hartzen dituzte); bestetik, "jantoki arruntak" daude (gainerako guztiak). Arazo horrek eragin zuzena dauka jantoki arruntan kudeaketan; izan ere, gurasoen elkarrean esku gelditzen dira haiek abian jartzeko erantzukizuna, haien funtzionamendua, zerbitzua egiten duen enpresaren kontratazioa, jarduera horretatik ondorioztatzen den erantzukizun zibila eta abar.

Horren inguruan, elkarte eta federazioetako jende askok aldarrikatu izan du bi jantoki mota horiek maila berean jarri behar direla, uste baitute halako zerbitzuen kudeaketa ez dela gurasoen eskumena, baizik eta Administrazioarena, eskualdeko jantokietan ohikoa den bezala. Orain arte, gurasoek lan asko egin izan dute horretan, eta denbora asko eman dute betebeharrak horretan. Gurasoek lan horietan parte hartu behar dute, Eskola Kontseiluaren eginkizunen artean adierazten den bezala, eta beren diru-baliabideen arabera finantzatu behar dituzte.

Nafarroako Demokraten Elkargunearen iritziz, hezkuntza administrazioa da eskola-jantoki guztien antolamendua eta kudeaketa bere gain hartu behar dituen. Zerbitzu hori erraztea oso lagungarria da familiei hezkuntza lanetan behar duten laguntza emateko: haien seme-alabei arreta egokia emanen zaiela bermatuko duten denbora eta esparru bat eskainiko ditu, eta bidea emanen du hobekuntza-prozesuan aurrera egiteko. Beste aurrerapauso garrantzitsu bat izanen da hori famili eta lan bizitza uztartzeko.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu Biltzarreko Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean eskola-jantokiek bete behar dituzten baldintzak arautuko dituen arau-proposamen bat egin dezan, ondoko irizpideei jarraituz:

1. Administrazioak, eskola-kontseiluen laguntzarekin, antolatu eta kudeatuko ditu ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako derrigorrezko mailako eskola-jantoki guztiak.

2. Jantokiaren berezko jarduketarako planifikaturik hezkuntza helburu batzuk ezarriko dira; zeri-

kusia izanen dute elikaduran, higieanean eta nutrizioan ohitura osasungarriak sortzearekin eta gaitasun sozialetan trebatzearekin.

3. Otorduen aurreko eta geroko aisialdia adinaren eta ikasleen ezaugarrien arabera antolatuko da. Jantokiaren eta asialdiaren erantzuleek behar den prestakuntza izanen dute eta haien proposamenak Eskola Kontseiluak balioetsi eta onetsiko ditu.

4. Horretatik guztitik ondorioztatzen den erantzukizun zibila Nafarroako Gobernuak eta enpresa hornitzaileek partekatuko dute.

5. Berariaz baloratuko da enpresa hornitzaileen kontratazioan hezkuntza proposamen ahal den eta osatuena eskaintzen dutenak.

6. Zaindari-mahaikide ratioak egokitu egingen dira, eta beti izanen dira irakasle-gela ratioak baino txikiagoak.

7. Sortu berritako ikastetxe guztiek jantokirako lekua izanen dute; gainerako ikastetxeetan eskola-jantokirako beste ezertarako erabiltzen ez den leku bat egoteko ahaleginak egingen dira.

8. Administrazioak eskola jantokietako prezioak ezarriko ditu, eta behar diren fondoak jarriko dira behar duten familiei bekak edo laguntzak eman ahal izateko.

Iruñean, 2000ko ekainaren 5ean

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

---

## **Eskubide sozialen aldeko adierazpen politikoa**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2000ko ekainaren 12an egindako bilkuran, hurrengo adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak 103 Hitzarmenean aitortutako eta jasotako eskubide sozialak babesten ditu bai eta hartan jasotako bermeetako batzuk zabaltzeko aukera ere, esate batera gurasoentzako eta adopzio bidezko amatasun/aitatasunerako baimenen arautzea.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Lanaren Nazioarteko Erakundearen 103 Hitzarmena aldatzeko edozein saioaren aurka dagoela,

baldin eta aldaketa hori emakume langileen amatasuna babesteko eskubide eta garantien aurka badago.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuari eskatzen dio hurrengo urteko konferentzian jarrera tinkoa izan dezan finkaturik dauden eskubideen alde, eta ez dezan amatasuna babesteko bermeen inolako urratzerik onar.”

Iruñean, 2000ko ekainaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxe berrian Jarraipen Bereziko Espetxeratuaren Fitxategia (JBEF) ereduko modulu bat sortzea eragoz dezan**

### *AKATS ZUZENKETA*

2000ko ekainaren 15eko 50 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean Osasun Batzordeak ondoko mozioa bazter utzi zuela adierazten zuen ofizioa argitaratu zen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxe berrian Jarraipen Bereziko Espetxeratuaren Fitxategia (JBEF) ereduko modulu bat sortzea eragoz dezan”. Ofizio horretan akats bat

atzeman da eta jarraian zuzentzen da:

Aipatu mozioa bazter utzi zuena Gizarte Gailetako Batzordea izan zen eta ez Osasun Batzordea.

Iruñean, 2000ko ekainaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **San Adriángo “Alfonso X El Sabio” Ikastetxe Publikoari emandako dirulaguntzari buruzko galdera**

### *IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 12an egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak San Adriángo “Alfonso X El Sabio” Ikastetxe Publikoari emandako dirulaguntzari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaiten.

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren otsailaren 17ko 30/1999 Foru Aginduaren bitartez, ikastetxe publikoak hobetzeko, zabaltzeko eta birmoldatzeko obra proiektuak egiteko Nafarroako Foru

Komunitateko udal eta kontzejuendako dirulaguntzen deialdia onetsi zen.

Deialdi horren babesean, San Adriángo Udalak dirulaguntza bat eskatu zuen “Alfonso X El Sabio” ikastetxe publikorako. Zehazki, 23.503.586 pezetako zenbatekoa zuten dirulaguntzak eskatzen ziren “eskola egokitzeko eta etxezain esparrua jaunaren etxebizitza zaharberritzeko, ikastetxearen egungo beharrei aurre egin ahal izateko”.

Ikastetxeko Eskola Kontseiluak eskari horren aldeko txostena eman zuen.

Hori guztia dela eta, jakin nahi dugu:

-Eman al zion Hezkuntza Departamentuak dirulaguntzarik San Adriángo “Alfonso X El Sabio” ikastetxeari, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren otsailaren 17ko 30/1999 Foru Aginduaren babesean?

Hala izan bazen, zein izan zen emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta helburua?

Eman ez bazen, zergatik ukatu zen?

Iruñean, 2000ko ekainaren 8an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

**G Saila:****TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 10ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko apirilaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina****AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (10. or.).
- II. Helburuak eta norainokoa (12. or.).
- III. Iritzia eta ondorio eta gomendioen laburpena (13. or.).
- IV. Finantza egoera-orriak (15. or.).
- V. Ondorio eta gomendioak Nafarroako Unibertsitate Publikoari (18. or.).
  - V.1. Dirusarreraren aurrekontua (18. or.).
  - V.2. Gastuen aurrekontua (19. or.).
  - V.3. Balantzearen azterketa (29. or.).
  - V.4. Diruzaintzako gerakina (31. or.).
- VI. Ondorio eta gomendioak Unibertsitate-Gizarte Fundazioa (32. or.).
  - VI.1. Kontabilitateko araubidea (32. or.).
  - VI.2. Ibilgetu materiala (32. or.).
  - VI.3. Enpresetako bekadunen gastuak (32. or.).
  - VI.4. Langileen gastuak (33. or.).
  - VI.5. Kongresuen dirusarrerak (33. or.).

I. **eranskina.** NUPen organigrama, 1998-12-31n. (35. or.).

II. **eranskina.** Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren organigrama, 1998-12-31n (36. or.).

NUPEko errektoreak behin-behineko txostenari aurkeztu dizkion alegazioak (37. or.).

Kontuen Ganbararen erantzuna NUPEko errektoreak aurkeztutako alegazioei (40. or.).

**I. SARRERA****I.1. IZAERA JURIDIKOA**

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (aurrerantzean NUP) Nafarroako Foru Komunitateari lotuta dago eta zuzenbide publikoko erakundea da. Izaera juridikoa du eta, autonomia araubidean, goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoaren ardura duna da.

Unibertsitatearen erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoari jarraituz, autonomia horren barruan daude:

- Barne funtzionamenduko estatutuak eta gainerako arauak egitea.
- Gobernu eta administrazio organoak hautatu, izendatu eta kargutik kentzea.
- Bere aurrekontuak egin, onartu eta kudeatzea eta ondasunak administratzea.
- Plantillak finkatu eta aldatzea.
- Goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoa egoki bete ahal izateko beharrezko duen beste edozein eskumen, baldin eta eskumen hori Unibertsitatearen erreformari buruzko Legeak ez badio berariaz Estatuari edo Nafarroako Foru Komunitateari esleitzen.

Estatutuetako 2. artikuluari jarraituz, irakaskuntza, azterketa eta ikerketa bidezko goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoa ematerakoan, ondoko hauek dira Unibertsitatearen helburuak:

- Teknika, zientzia eta giza-zientzien alorretan profesional kualifikatuak prestatzea.

- Zientzia, teknika eta giza-zientzien garapena laguntzea, ikerlariak prestatuz eta beraien jarduerara bultzatuz.

- Unibertsitatea hedatzeko jarduerak garatzea, bai eta kultur ekintzak eta prestakuntza iraunkorrekoak ere, gizartearen garapena, batez ere Nafarroako Foru Komunitateko gizartearen garapena, bultzatuko dutenak.

Unibertsitatearen ekintzak dirusarreraren arabera prestatutako aurrekontuan zehazten dira. Dirusarrerara horiek ondoko hauetatik datoz:

- Nafarroako Foru Komunitateak urtero zehazten duen dirulaguntza orokorra.

- Estatutik, Nafarroako Foru Komunitatetik edo beste administrazio publikoetatik jaso ditzakeen bestelako transferentziak.

- Ikasketa-tasak.

- Entitate publiko edo pribatuetatik datozen dirulaguntzak, legatuak edo dohaintzak.

- Unibertsitatearen erreformari buruzko Legean eta Estatutuetan jasotzen diren beste jarduera batzuetatik jasotako etekinak.

- Kontratu edo hitzarmenen dirusarrerak.

- Diruzaintzako gerakina eta bestelako dirusarrerak.

Aurrekontuan bere jardunerako beharrezkoak dituen gastuak ere aurreikusten dira, adibidez:

- Irakaskuntzako, administrazioiko eta zerbitzuetako langileak.

- Funtzionamendu, zainketa eta mantenimenduko gastuak.

- Azpiegiturako gastuak eta material zientifikoaren mantenimendukoak.

- Obra orokorrak eta ekipamendukoak.

- Bekak, langileen prestakuntza eta bestelako gastuak.

## 1.2. ANTOLAKUNTZAKO OINARRIZKO EGI-TURA

Funtsean, hauek dira NUPeko gobernu-organo orokorrak: kide anitzekoen artean daude Gizarte Kontseilua, Unibertsitateko Klaustroa eta Gobernu Batzarra; kide bakarrekoak, aldiz, errektorea (Unibertsitateko agintari gorena), errektoreordeak, kudeatzailea eta idazkari orokorra.

Unibertsitatea departamentuetan dago egitaratua. 1989-1990 ikasturtean jardunean hasita, gaur egun, 20 departamentu eta 5 zentro ditu, bai eta Unibertsitateko komunitatearen prestakuntza eta laguntza sozialerako beste zerbitzu batzuk ere.

Halaber, 1997an sortutako Unibertsitate-Gizarte Fundazioa ere badu.

## 1.3. OINARRIZKO ARAUBIDE JURIDIKOA

Honakoek ezartzen dute bere oinarrizko araubide juridikoa: Unibertsitatearen erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoa; Sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea; NUPeko Gizarte Kontseiluari buruzko abenduaren 9ko 20/1994 Foru Legea eta Gobernuaren erabakiz 1995eko otsailaren 20an onetsitako Estatutuak.

## 1.4. AURREKONTU ETA KONTABILITATE ARAUBIDEA

Zuzenbide publikoko entea izaki, NUPeko aurrekontu eta kontabilitate araubidea sektore publikoarendako orokorki indarrean dagoenari egokitu behar zaio.

1998ko ekitaldira arte, NUPa bere aurrekontu- eta kontabilitateko kontuak aurkeztera mugatzen zen, kontabilitate finantzarioa ezartzeko prozesuan baitzegoen.

1998ko ekitaldiko bigarren zatian, NUPek Kontabilitate Publikoko Plan Orokor berria ezarri zuen, eta ondorioz, 1998ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiari dagozkion urteko kontuak, ondare eta finantza arloan, indarrean dagoen araudiari jarraituz aurkeztu dira.

Honakoak izan dira kontabilitateko plan berria abiarazteko oinarrizko tresna informatikoak: Estatuko Administrazio Orokorreko Kontu-hartzailatzaren (IGAE) SIC-2 programa eta Unibertsitateko Lankidetzaren Bulegoaren (OCU) aurrekontu-kudeaketari buruzko Sorolla programa.

## 1.5. UNIBERTSITATE-GIZARTE FUNDAZIOA

Unibertsitate-Gizarte Fundazioa NUPeko Gobernu Batzarraren 1996-12-20ko erabakiaren bidez sortu zen eta 1997ko ekainaren 10ean eskritura publiko bidez eratu. Berezko izaera juridikoa du eta jarduteko ahalmen osoa, Nafarroako Foru Berriko 43. Legean ezarritakoari jarraituz. Fundazioa, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumako edo Foru Berriko 44. Legearen babesean eratua dena, interes sozialekoa da eta ez du inolako irabazi asmorik. Fundazioa honako helburu hauek erdiesteko sortu zen: Nafarroako Uniber-

tsitate Publikoaren eta agente ekonomiko eta sozialen arteko elkarrizketa sustatu eta bultzatzea; erakunde horientzat interesa duten edozein motatako azterketak eta ikerketak sustatzea; Unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremana sustatzea, NUPeko tituludunen prestakuntzarako praktiken bidez, tituludun horiek enpresa munduan errazago sar daitezten. Fundazioaren ondarea, batez ere, ikerketa eta prestakuntza zientifiko eta teknikora bideratuta dago.

1998ko bukaeran, Hizkuntzen Goi Mailako Ikastegia Fundazioan sartu zen.

Hauek dira Fundazioaren organoak: Patronatuko Batzarra, Zuzendaritza Batzordea eta zuzendari kudeatzailea. Lehenengo bietako kideak NUPek izendatzen ditu, eta azken hori, Zuzendaritza Batzordeak.

Fundazioan aplikatzekoa den kontabilitate araubidea Fundazioen tributu araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeak arautzen du. Honakoa dio fundazioen kontabilitateko egoera-orriek bete behar dituzten baldintzei dagokienez: "Fundazioek salbuetsita dauden entitate-entzako Sozietateen gaineko Zergaren araudiak ezarritako kontabilitate-obligazioak bete beharko dituzte; horrek ez du eragotziko Merkataritza Kodeak eta haren xedapen osagarriek eskatzen duten kontabilitatea egin behar izatea, jarduera ekonomikoren bat egiten dutenean."

Beraz, eta beste edozein interpretazio izan badaiteke ere, Fundazio hori enpresa pribatuaren Kontabilitate Plan Orokorren pean egonen litzateke (1643/1990 Errege Dekretua). Dena den, apirilaren 30eko 776/1998 Errege Dekretuaren bidez, Kontabilitate Plan Orokorra irabaz asmorik gabeko entitateei egokitzeko arauak onetsi ziren, bai eta entitate horien aurrekontuen informazio arauak ere. Azkeneko arau hori da, hain zuzen ere, Fundazioak 1998ko ekitaldirako aplikatu nahi duena.

Honako hauek dira Fundazioaren jarduera nagusiak:

- Unibertsitateko enpleguaren zerbitzu integrala. Zerbitzu horrek, ikasleei informazioa, prestakuntza, aholkuak eta prestakuntzarako praktikak eskaintzen dizkie; tituludunei, aldiz, prestakuntzarako bekak. 1997-1998 ikasturtean zehar, 634 ikaslek eta tituluak berrik egin dituzte praktikak enpresa eta erakundeetan.

- Lan poltsa. 103 tituludunek lortu dute lana Fundazioaren bidez.

- Nafarroako Gobernuak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak diruz lagundutako prestakuntzako eta aholkularitzako ekintzak.

- Enpresei eta Nafarroako gizarteari zuzendutako etengabeko prestakuntza programak.

- Ikerketa Eraitzen Transferentzia Bulegoak izapidatu dituen hitzarmenen bidez ikerketak egitea.

- 1998ko bukaeran Fundazioan sartutako Hizkuntzen Goi Mailako Ikastegia.

Azken batean, esan dezakegu, Unibertsitate-Gizarte Fundazioa titulartasun publikoko entea dela, izaera juridiko pribatua duela, eta gainera, zuzenbide pribatuari lotua dagoela, besteak beste, arlo zibilean eta baita merkataritza eta lan arloan ere. Baina, fundazioa ente publiko batek, NUPek, osatzen, zuzentzen eta hornitzen duenez eta interes orokorreko helburuak betetzen dituzenez, araubide fiskal berezia du, Fundazioen tributu araubidea arautzen duen 10/1996 Foru Legearen babesean. Bada, horregatik guztiagatik, sektore publikoko enteei dagozkien zenbait printzipio eta betebeharrak ditu (publizitatea, gardentasuna, finantza kudeaketa arduratsua, kontuak azaltzea eta kontrola) eta haren kontabilitate eta finantza egoera-orriak NUPekoen barruan egon beharko lirarteke.

## II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 29ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Kontuen Ganbarak 1999ko bere jarduketaren planean sartu du Unibertsitate Publikoaren eta haren menpeko erakundearen fiskalizazioa, 1998ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiari buruzkoa.

Lan honek ondoko helburuak ditu:

- 1998ko dirusarreren eta gastuen aurrekontuak bete direla eta ekitaldian zehar egindako ekintzak behar bezala jasotzen dituztela egiaztatzea eta horri buruzko iritzia ematea.

- 1998ko abenduaren 31ko egoeraren balantzean jasotako ondare eta finantza egoera egiaztatzea eta horri buruzko iritzia ematea; betiere, aplikagarri zaizkion eta aurreko ekitaldiarekin bat datozen kontabilitateko printzipio eta arauak kontuan hartuz.

- Jarduera ekonomiko-finantzarioak eta haren menpeko erakundeek legezotasun printzipioaren pean jartzea.

- Kontuen Ganbarak aurretik egindako fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioak zein neurritaraino betetzen diren ikustea.

Unibertsitatearen eta haren menpeko erakundearen gainean egin dugun lanaren norainokoari dagokionez, ondokoak barneratu ditugu: 1998ko

dirusarrera eta gastuen aurrekontuaren likidazioen analisisa eta zentsura, 1998ko abenduaren 31ko egoeraren balantzearen azterketa eta ekonomia eta ondare emaitzen gaineko kontua.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Estatu-ko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen (Ocex) Koordinaziorako Batzordeak onetsitako "sektore publikoko auditoretza printzipio eta arauak" aplikatu dira.

Zehazki, balantzearen eta emaitzen kontuaren azterketan, eta baita aurrekontuaren azterketa eta zentsuran, finantza auditoretza publikoko arauak eta prozedurak aplikatu dira, beharrezkotzat jotzen baititugu egoera eta lanaren helburuak kontuan hartuz. Gainera, unibertsitatearen eta haren fundazioaren antolaketa eta barne kontrola hobetzeko egoki iritzi ditugun iruzkinak eta gomendioak ere agertu ditugu.

Azterketa 1999ko urrian, azaroan eta abenduan egin zen.

Eskertu egin nahi dugu NUPeko langileek lan hau egiteko eskainitako laguntza.

### III. IRITZIA

Egindako fiskalizazioaren barruan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren kontabilitatearen egoera-orriak aztertu ditugu. Egoera-orri horiek 1998ko ekitaldiari dagozkio eta txosten honetako IV. epigrafean bildu dira laburki.

Egin dugun azterketan, Espainiako Estatu-ko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinaziorako Batzordeak sektore publikorako onetsitako auditoretza arau eta prozedurak aplikatu dira.

#### III.1. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

Gure iritzia eman aurretik, azpimarratu behar dugu zein kontestutan egin den aztertutako 1998ko aurrekontu ekitaldia.

Ekitaldi horretan ez da kontu-hartzailetzarik egin, eta hori barne kontrolerako oinarritzakoa da. Hain zuzen ere, 1999an hasi dira egiten.

Gainera, NUPek, ekitaldiaren bigarren zatian bere kontabilitate sistema asko aldatu du, Kontabilitate publikoko Planaren eskakizunetara egokitzeko. Horrela, lehenengo aldiz, 1998ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiko kontuak indarrean dagoen araudiaren arabera aurkeztu dira, ondareari eta finantzari buruzko alderdiei dagokienez.

Kontabilitate sistemaren aldaketa hori burutzeko, egokitzapen lan handia egin behar izan da, 1998ko ekitaldia ixteko, eta abiapuntua den hori, hurrengo ekitaldietan hobetzen joan beharko da.

1999ko ekitaldian zehar adoste, froga eta doikuntzak egiten jarraitu dute. Horiei esker, etorkizuneko ekitaldietako finantza egoera-orrietako saldoak seguruagoak eta fidagarriagoak izanen dira.

Gure lana eta iritzia, 1998ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiko finantza egoera-orri buruz aipaturiko gorabeherak baldintzatu dute.

#### III.1.1. Aurrekontuaren likidazioari buruzko iritzia eta haren ondare-egoera

Oinarritzko zenbait alorretan barne kontrol egokirik ez izateagatik eta finantza egoera-orriak azalduko egoeran itxi izanagatik, ezin dugu esan 1998ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko finantza egoera-orriak arrazoizkoak diren ala ez.

#### III.1.2. Legezketasuna

Unibertsitatearen jarduera ekonomiko-finantziarioan, indarrean dagoen legediaren zenbait arauhauste hauteman ditugu eta txostenean jaso. Hona hemen garrantzitsuenak:

- Administrazio-ko eta zerbitzuetako langileei aplikatzen zaien lansari-ereduaren zenbait alderdi. Izan ere, NUPeko Gobernu Batzarraren erabakiak langile horientzat legez ezarritako ordainsari-eredua aldatzeaz gain, estatuko araubidearen eta foru araubidearen arteko sistema bat ezarri nahi du.

- Lehenik, irakasleak parekatzeko osagarri bat aplikatzea irakasle eta ikertzaileei, eta ondoren, guztiei beste ordainsari bat aplikatzea, irakaskuntza eta ikerketako eskakizunengatik edo meritu nabarmenengatik, nahiz eta indarrean dagoen legediak ordainsari hori banakakoa eta salbuespenezkoa dela ezartzen duen.

- Txostenean jasotzen diren kontabilitate- eta aurrekontu-araudiko beste salbuespen batzuk.

#### III.1.3. Aurreko fiskalizazio txostenetako gomendioak betetzea

Kontabilitate sistema aldatzeak aurrerapen nabarmenak ekarri ditu aurreko ekitaldiekin alderaturik. Baina halere, aurreko fiskalizazioetan egindako zenbait gomendio oraindik ez dira bete. Gomendio horiek txostenean bildu ditugu, beste berriago batzuekin batera.

Beraz, kontuan hartzen dugu 1998ko finantza egoera-orrietan egindako ahalegina, baina Unibertsitateak bere prozedurak eta kontrolak osatu egin behar ditu zenbait alorretan. Ildo horretatik

doaz txosteneko V. atalean sartu ditugun gomendioak. Gomendio horiek, batez ere, ondoko gaiak ukitzen dituzte:

- *Tasen dirusarreraren, titulu berekien eta korri-tuen alorra hobeki kontrolatzea.*
- *Langile eta nominen alorra hobeki kudeatzea, plantilla osotzea eta egitura organikoa onestea.*
- *Erosketen alorra hobeki kontrolatzea eta ikerketa proiektuak hobeki kudeatu eta kontrolatzea.*
- *Diruzaintza (kutzak eta bankuak, kobraketak eta ordainketak) eta langileen aurrerakinak hobeki kontrolatzea; kontuan, ordaindu gabeko batez besteko saldo handiak izatea saihestea, eta hala korrik bada, egoera hori berraztertu eta zuzentzea.*
- *Inbentarioa berrikusi eta haren bilakaera aztertzeako sistema ezartzea.*
- *Ordaindu beharreko kontuak hobeki kontrolatzea eta aldizkako adoste eta egiaztapenak egitea.*

### III.2. UNIBERTSITATE-GIZARTE FUNDAZIOA

#### III.2.1. Finantza egoera-orriari buruzko iritzia

Barne kontrol egokirik eta kontu-hartzaitzaren kontrolik ez dagoenez, ez eta Fundazioarenak diren ondasun eta eskubideen inbentariok ere, ezin dugu 1998ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiaren finantza egoera-orriari buruzko iritzirik eman.

#### III.2.2. Legezketasuna

Gure iritziz, Fundazioa arautzen duten Estatu-tuen zenbait artikulua, batez ere, berorren ekonomiarik eta kontabilitateari dagokion kudeaketa-araubideari buruzkoak, ez datoz bat indarrean dagoen legediarekin: bai Fundazioei buruzko 10/1996 Foru Legean araututako araubide fiskal berezia duen interes orokorreko fundazio pribatuztat hartzen delako, eta baita sektore publikoaren

barruko entitate izateagatik aplikagarri zaizkion publizitateari, kudeaketaren gardentasunari eta kontrolari buruzko arau eta oinarriko printzipioei dagokienez ere.

Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren jardueran, unibertsitateko irakasleei aplikagarri zaien lansari-araubidearen arauketari dagokionez, eta baita fundazioaren araubide juridiko-finantzarioari dagokionez ere, zuzenak ez diren zenbait ekintza hauteman ditugu; adibidez: kongresuetako superabita irakasleen artean banatzea edo superabit horiek beste xede batzuetarako erabiltzea.

#### III.2.3. Gomendioak

Kontuen azterketatik zenbait gomendio ondorioztatzen dira, fundazioaren barne kontrola hobetzeko. Txosteneko VI. atalean bildu ditugu eta, batez ere, ondoko gaien ingurukoak dira:

- *Fundazioaren kontabilitate eta aurrekontu araubidea irabazi asmorik gabeko entitateen Kontabilitate Plan Orokorren eskakizunetara egokitzea.*
- *Fundazioen tributua araubideari buruzko Legeak ezartzen dituen kontrolak egitea.*
- *NUPeko Kontu-hartzaitzak Dirulaguntzei buruzko Legean ezarritako finantza-kontrola egitea.*
- *Estatutuak indarrean dagoen araudira egokitzea.*
- *Ondasun eta eskubideen inbentarioa egitea.*
- *Bekadunei egiten zaizkien kobraketa eta ordainketak kontrolatzeko datu-baseak hobetzea.*
- *Kongresuen antolaketatik datozen etekinak esleitzeko jokaera hori ezabatzea.*
- *Bere aurrekontuak eta likidazioa, bai eta finantza egoera-orriak NUPeko kontuetan sartzearan eranskin gisa.*

**IV. FINANTZA EGOERA-ORRIAK**

## IV.I. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO FINANTZA EGOERA-ORRIAK

## NUPen egoeraren balantzea - 1998ko ekitaldia (pezetak, milakotan)

AKTIBOA	1998-12-31n	PASIBOA	1998-12-31n
A) IBILGETUA	18.327.621	A) FONDO BEREKIAK	19.428.790
II. Ibilgetu ez-materiala	25.264	I. Ondarea	18.872.044
3. Aplikazio informatikoak	66.430	1. Ondarea	7.451.039
9. Amortizazioak	(41.166)	3. Lagapen bidez jasotako ondarea	11.421.006
III. Ibilgetu materiala	17.937.642	IV. Ekitaldiaren emaitzak	556.746
1. Lursailak eta eraikinak	15.457.358		
2. Instalazio teknikoak eta makineria	1.638.616		
3. Tresneria eta altzariak	1.440.313		
4. Bestelako ibilgetua	3.741.510		
5. Amortizazioak	(4.340.155)		
V. Inbertsio finantzario iraunkorrak	364.716		
1. Epe luzeko baloreen zorroa	4.500		
3. Epe luzerako eraturiko fid. eta gord.	360.216		
C) AKTIBO IBILKORRA	2.505.428	D) EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	1.404.259
II. Zordunak	1.116.912	III. Hartzekodunak	1.404.259
1. Aurrekontuko zordunak	1.107.672	1. Aurrekontuko hartzekodunak	1.109.810
2. Aurrekontukoak ez diren zordunak	9.200	2. Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak	92.265
4. Administrazio publikoak	55	4. Administrazio publikoak	206.691
5. Beste zordun batzuk	(15)	5. Beste hartzekodun batzuk	(4.579)
III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak	306.762	6. Epe laburrera jasotako fidantzak eta gordailuak	72
1. Epe laburreko baloreen zorroa	105.812		
2. Epe laburreko beste inb. eta kred. batzuk	200.950		
IV. Diruzaintza	1.081.753		
Guztira	20.833.049		20.833.049

## NUPeko ondare emaitzaren eta emaitza ekonomikoaren kontua

ZOR	1998-12-31n	HARTZEKO	1998-12-31n
A) GASTUAK	6.799.298	B) DIRUSARRERAK	7.356.043
1. Funtzion. eta gizarte zerb. eta prestaz. gastuak	6.449.741	1. Kudeaketa arrunteko dirusarrerak	1.944.200
a) Langileen gastuak	3.698.119	a) Tributuen dirusarrerak	52.431
a.1.) Soldatak, lansariak eta antzekoak	32.82.181	a.15) Tasak, zerbitzuak emateagatik	52.431
a.2.) Gizarte zamak	415.938	c) Zerbitzuak ematea	1.891.768
c) Ibilgetuaren amortizaziorako zuzkidurak	1.248.859	c.1.) Prezio publikoak, zerbitz. emateagatik	1.874.808
e) Kudeaketako bestelako gastuak	1.502.258	c.2.) Gune pub. erabilera pribatua. prezio pub.	16.960
e.1.) Kanpoko zerbitzuak	1.501.909	2. Ohiko kudeaketatik datozen beste dirusarrerak	48.913
e.2.) Tributuoak	349	a) Itzulketak	54.57
f) Finantza gastuak eta antzekoak	505	c) Kudeaketako beste dirusarrerak	1.341
f.1.) Zorren arabera	505	c.1.) Dirusar. osag. eta beste oh. kudeak. batzuk	1.341
2. Transferentziak eta dirulaguntzak	346.910	f) Antzeko beste interes eta dirusarrerak	42.114
a) Transferentzia arruntak	319.298	f.1.) Beste interes batzuk	42.114
b) Dirulaguntza arruntak	27.611	3. Transferentziak eta dirulaguntzak	5.357.431
3. Galerak eta aparteko gastuak	2.647	a) Transferentziak eta dirulaguntzak	4.125.665
d) Beste ekitaldietako gastuak eta galerak	2.647	b) Ohiko dirulaguntzak	473.681
		c) Kapital transferentziak	616.700
		d) Kapital dirulaguntzak	141.385
		4. Irabaziak eta aparteko dirusarrerak	5.500
		d) Beste ekitaldietako dirusarrera eta mozkinak	5.500

## NUPko 1998ko dirusarreren aurrekontuaren betetzea (pezetak, milakotan)

Kapitulua	Aurrekontuko aurreikuspenak		Aitortutako eskubide garbiak	Dirubilketa garbia	Kobratzeke dauden eskubideak	Betetzea, ehunekotan
	Hasierakoak	Behin betikoak				
III. Tasak, prezio pub. eta beste dirusar.	1.432.087	1.539.863	1.510.251	1.148.547	361.704	98
IV. Transferentzia arruntak	4.495.231	4.607.649	4.409.213	4.329.169	80.044	96
V. Ondare bidezko dirusarrerak	141.630	141.630	59.075	46.699	12.375	42
VII. Kapital transferentziak	676.700	694.200	758.084	437.280	320.805	109
VIII. Finantza-aktiboak	17.000	725.643	13.515	13.515	0	79
Guztira	6.762.648	7.708.985	6.750.138	5.975.210	774.928	96

## NUPeko 1998ko gastuen aurrekontuaren betetzea (pezetak, milakotan)

Kapitulua	Aurrekontuko kredituak		Hitzartutako gastuak	Aitortutako betebeharrak	Egindako ordaintzekak	Ordaintzeke dauden betebeharrak	Betetzea, ehunekotan
	Hasierakoak	Behin betikoak					
I. Langileen gastuak	3.733.956	3.713.956	3.660.646	3.660.646	3.639.145	21501	99
II. Ond. arruntan eta zerb. gastuak	1.493.441	1.956.366	1.582.746	1.567.747	1.244.382	323366	80
III. Finantza gastuak	1.000	1.000	505	505	457	48	50
IV. Transferentzia arruntak	359.422	381.504	325.671	319.543	299.212	20331	84
VI. Inbertsio errealak	1.157.704	1.639.033	1.585.725	1.078.435	380.916	697518	66
VIII. Finantza-aktiboak	17.125	17.125	14.465	14.465	14.465	0	82
Guztira	6.762.648	7.708.984	7.169.758	6.641.341	5.578.577	1.062.764	86



## IV. 2. UNIBERTSITATE-GIZARTE FUNDAZIOAREN FINANTZA EGOERA-ORRIAK

Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren egoeraren balantzea 1998-12-31n (pezetak, milakotan)

AKTIBOA	1997	1998	PASIBOA	1997	1998
IBILGETU MATERIALA	13.411	12.999	FONDO BEREKIAK	25.456	45.917
Makinak	12.157	4.997	Sortze fondoa	4.000	4.000
Tresnak		198	Borondatezko erreserbak	21.456	21.043
Altzariak		6.550	1998ko mozkinak		20.874
Prozesu informatik. ekipoa	1.254	1.666	EPE LABUR. HARTZEKODUNAK	16.328	53.867
Pilatutako amortizazioa		(412)	Merkataritzako hartzekodunak	13.713	17.298
AKTIBO IBILKORRA	28.025	58.492	Ogasun Publikoa, hartzekodun	713	2.739
Bezeroak		6.221	Gizarte Segurantza hartzekodun	436	2.523
Bestelako zordunak	28.025	52.145	Aldizkatze doiketak	1.466	31.307
Ogasun Publikoa, zordun		126			
DIRUZAINZA	348	28.293			
Kutxa		27			
Bankuak	348	28.266			
Aktiboa, guztira	41.784	99.784	Pasiboa, guztira	41.784	99.784

Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren emaitzen kontua, 1998-12-31n (pezetak, milakotan)

DIRUSARRERAK	Zenbatekoa	GASTUAK	Zenbatekoa
Enpresetatiko dirusarrerak bekadunengatik	202.758	Enpresetako bekadunen gastuak 1998an	202.755
Fundazioaren zerbitzuak ematea	1.230	Enpresetako bekadunen gastuak 1997an	19.561
Kudeaketagatiko dirusarrerak	2.184	Beste enpresetako lanak	1.608
NUPeko 1997ko dirusarrerak	11.489	Langileen gastuak	36.632
Funtzionamendurako dirusarrerak	26.536	Soldata eta ordainsariak	28.724
CSI zerbitzuak ematea	678	Enpresaren kargurako gizarte segurantza	7.711
CSI matrikulen dirusarrerak	3.807	Langileen bestelako gastuak	197
Aseguruen dirusarrerak	2.448	Errentamenduak eta kanonak	220
Ikastaro eta kongresuetako salmentak	24.084	Konponketak eta zainketa lanak	14
NUPen transferentzia	30.000	Profesional independenteen zerbitzuak	7.027
Bestalako dirusarrera finantzarioak	503	Garraioa	117
Dirusarrerak, guztira	305.717	Aseguru sariak	2.448
		Publizitatea, propaganda	1.668
		Elektrizitate, gas eta ur hornidura	216
		Bestelako gastu finantzarioak	3
		Komunikazioak	425
		Bestelako kanpoko zerbitzuak	12.150
Ekitaldiko emaitza positiboa	20.873	Gastuak, guztira	284.844

**V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK: NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA****V.1. DIRUSARREREN AURREKONTUA**

1998ko dirusarrerren aurrekontua 7.709 milioi-

takoa da eta ekitaldian aitortutako eskubideek 6.750 milioi egiten dituzte. Beraz, aurreko ekitaldiarekiko ehuneko 2 igo da, kapitulu ekonomikoka zehaztu dugun ondoko taulan ikus daitekeenez (pezetak, milioitan):

Kapitulua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Kobratutakoa	Kobratzeke dagoena	Betetzea, ehunekotan
Tasak, prezio publikoak eta bestelako dirusar.	1.540	1.510	1.149	362	98
Transferentzia arruntak	4.608	4.409	4.329	80	96
Ondare bidezko dirusarrerak	142	59	47	12	42
Kapital-transferentziak	694	758	437	321	109
Finantza-aktiboak	(*) 726	14	14	0	
<b>Dirusarrerak, guztira</b>	<b>7.709</b>	<b>6.750</b>	<b>5.975</b>	<b>775</b>	

(\*) 709 milioi sartu dira (248 milioi, 1997ko diruzaintzako berariazko gerakina, eta 461 milioi, 1996 eta 1997ko diruzaintza oroko erreko gerakina)

**V.1.1. Tasak, prezio publikoak eta beste dirusarrerak**

Hona hemen kontua, artikulua eta aurreko ekitaldiarekiko kopuru konparagarriekin (pezetak, milioitan):

Artikulua	1997	1998	Igoera, ehunekotan
Tasak	56	52	(7)
Zerbitzuak ematea	1.078	1.244	15
Bestelako dirusarrerak zerbitzuak emateagatik	133	203	52
Ondasunak saltzea	6	6	
Itzulketak	2	5	202
<b>Guztira</b>	<b>1.276</b>	<b>1.510</b>	<b>18</b>

Zerbitzuak ematea

Kontzeptu garrantzitsuena da, 1.224 milioitako dirusarrerekin; dirusarrera handienak, matrikuletatik (1.135 milioi) eta titulu berekietatik (58 milioi) datoz.

Matrikulengatik jasotako dirusarrerak 1997ko 941 milioietatik 1998ko 1.135 milioietara pasa dira, kontabilitateko irizpide aldaketa bat dela medio; izan ere, kutxako kontabilitate irizpidea erabili beharrean sortzapeneko erabiltzera pasatu da.

Nafarroako Gobernuak finkatutako prezio publikoak ehuneko 3 igo ziren aurreko ikasturtearekiko (210/1998 FD).

Zerbitzuak emateagatik dirusarrerren aurrekontuaren likidazioan 51 milioi gehiago sartu dira kontabilitate akats bat dela medio.

Titulu berekien kontzeptua finantziazio atxikia duen kontusaila da, eta bertan, NUPek urteoro, titulu bereki gisa, eskaintzen dituen ikastaroen (masterrak eta bestelako ikastaroak barne) gastu eta dirusarrerak biltzen ditu.

1998an, departamentu edo irakasleek urtero aurkezten dituzten ikastaro-proposamenak eta horien betetzea kontrolatzeko eta jarraipena egiteko prozedura bat hasi dira aplikatzen; hala ere, esan behar da Nazioarteko Merkataritza Masterraren gastuak eta dirusarrerak ez direla jaso NUPeko kontuetan.

Dirusarrerei dagokienez egin dugun azterketan oinarrituz, ondoko gomendio hauek ematen ditugu:

- *Kobraketak kudeatzeko arduradun bat izendatzea. Arduradun horrek zeregin hauek izanen ditu: bankuetara bidalitako matrikulen ordainagiriak kontrolatzea, horiek ezarritako epearen barruan bidaltzen direla ziurtatzea, eta bidalitako en kopurua kontuan hartuz, ingresatutako dirukopuruak berrikustea. (Ikus diruzaintzari buruz V.3.1. epigrafean emandako gomendioak).*

- *"Titulu bereki" guztien gastu eta dirusarrerak kontabilitatean jasotzea; ekarpenen ehuneko 10 aurrekontu orokorrean kontabilizatzea; aurkeztutako proposamenen kontrolerako hobekuntzak ezartzen eta betetzen jarraitzea, horiek proposatu dituzten departamentuekin eta kontabilitatearekin lankidetzan.*

**V.1.2. Transferentzia arruntak**

4.409 milioi pezetako eskubide aitortuak dituen kapitulu honek dirusarreraren aurrekontuaren ehuneko 65 egiten du.

Hona hemen nondik datozen ondorengo ekarpen hauek (pezetak, milioitan):

	1997	1998
Estatuko Administrazioetik	88	73
Erkidego autonomoetatik	4.243	4.199
Toki korporazioetatik	11	7
Enpresetatik	151	71
Beste entitate batzuetatik	22	39
Kanpotik	14	20
<b>Guztira</b>	<b>4.530</b>	<b>4.409</b>

Nafarroako Gobernuak egiten dituen ekarpenek kapituluaren ehuneko 95 egiten dute. Hona hemen ekarpen horiek:

	Pezetak, milioitan
Unibertsitateko funtzionamendurako transferentziak	4.046
Ikerketa proiektuetarako dirulaguntzak	130
Beka eta laguntzetarako dirulaguntzak	21
Bestelako dirulaguntzak eta laguntzak	2
<b>Guztira</b>	<b>4.199</b>

Unibertsitatearen funtzionamendurako ohiko dirulaguntzak, 4.046 milioi pezeta, ehuneko 4 igo dira aurreko ekitaldiarekiko.

1998an zehar, dirusarrera horiek kontabilizatzeke jarraitutako prozedura atipikoa izan da eta gure lana zaildu du, euskarri dokumentalak aurkitzerakoan. Dena den, behar bezala kontabilizatuta daudela ondorioztatu dugu.

**V.1.3. Ondare bidezko dirusarrerak**

59 milioi gauzatu dira; horietatik 42 bankuko gordailuen korrituetatik datoz, eta 17 kafetegi eta jantokien kontzesioak hartu ditzuzten enpresek ordaindutako kanonetatik.

**Banketxeetako kontuen korrituak**

120 milioitako aurrekontua zuen eta 42 gauzatu dira; alegia, ehuneko 35 bete da. Aztertu ondoren, honako hauek ondorioztatu ditugu:

- Ez da inon jasotzen banketxeekin hitzartutako korrituen berririk.

- Korrituen likidazioak ez dira berrikusten.

- Egozpen akatsak daude eta kontabilizatutakoa eta banketxeetako zirkulazioak ez datoz bat.

- Banketxeek sortutako korrituak ehuneko 2,5 egiten dute, batez beste.

- Banketxe batean korrituengatik inolako ordainsaririk ez duen kontusail bat bada; kontu horren urteko batez besteko saldoa 150 milioitakoa zen, 1998an.

Ikus daitekeenez, banketxeetako kontusailen korrituen dirusarrerak ez dira behar bezala kontrolatzen eta oro har, diruzaintzako kudeaketa ez da arrazoizkoa, V.3.1. epigrafean ikusiko dugunez. Bertan, finantza arloari buruzko gomendioak ere ematen ditugu.

**V.1.4. Kapital transferentziak**

Hona hemen kapitulu honen banaketa aurreko ekitaldiarekin alderatuta (pezetak, milioitan).

	1997	1998
Estatuko administrazioetik	9	17
Nafarroako Gobernutik	624	617
Kanpotik (Feder fondoak)	88	124
<b>Guztira</b>	<b>721</b>	<b>758</b>

Kapital transferentzietatik datozen dirusarrerak behar bezala kontabilizatu dira.

Nafarroako Gobernuak kapital-transferentzietatik ehuneko 81 egiten dute guztira; kopuru hori Gobernuak emandako informazioarekin alderatu da.

Feder dirusarrerak 1997-1999ko inbertsioetarako hirurteko planaren aurrerakinaren ehuneko 50 horretatik datoz.

**V.1.5. Finantza aktiboen aldaketa**

Unibertsitateko langileen mailegu eta aurrerakinaren itzulketak jasotzen ditu, 13,5 milioi pezeta. Alor honen kontrola txosten honetako V.3.1. idatzatian aztertu da.

**V.2. GASTUEN AURREKONTUA**

1998ko gastuen aurrekontua 7.709 milioitakoa da eta aitortutako obligazioek 6.641 milioi egiten dituzte; alegia, aurreko ekitaldiarekiko ehuneko 3,4 igo da, kapitulu ekonomikoka adierazitako ondoko taulan ikus daitekeenez.

## 1998ko gastuen aurrekontuaren betetzea (pezetak, milioitan)

Kapitulua	Behin betiko aurrekontua	Hitzartutako gastuak	Aitortutako obligazio garbiak	Egindako ordainketak	Ordaintzeke dauden obligazioak	Betetzea, ehunekotan
I. Langileen gastuak	3.714	3.661	3.661	3.639	22	99
II. Ondasun arrunten eta zerb. gastuak	1.956	1.583	1.568	1.244	323	80
III. Finantza-gastuak	1	0,5	0,5	0,5		50
IV. Transferentzia arruntak	381	326	320	299	20	84
VI. Inbertsio errealak	1.639	1.586	1.078	381	698	66
VIII. Finantza aktiboak	17	14	14	15		82
Guztira	7.709	7.170,5	6.641,5	5.578,5	1.063	86

**V.2.1. Langileen gastuak**Aurrekontuaren betetzea

Hona hemen 1998ko urteari dagokion I. kapituluaren aurrekontuaren betetzea, kapituluka (pezetak, milioitan):

Kontzeptua	Hasierako kreditua	Aldaketa	Behin betiko kreditua	Gauzatuakoa	Ordaindutakoa	Ordaintzeke
Goi-mailako agintariak	2	0	2	2	1	1
Funtzionarioak	2.574	(74)	2.500	2.468	2.468	0
Lan-kontratudunak	162	61	223	216	196	20
Bestelako langileak	596	(8)	588	577	577	0
Lan-etekinen pizgarriak	3	1	4	4	4	0
Kuotak eta gastu soziala	397	0	397	393	393	0
Guztira	3.734	(20)	3.714	3.660	3.639	21

Behin betiko aurrekontua kontuan hartuz, betetze maila ehuneko 98,5koa izan da. Langileen gastuek gastuen guztizkoaren ehuneko 55 egiten dute eta aurreko ekitaldiarekiko ehuneko 10 igo dira.

Aurrekontuaren betetzeari dagokionez, ondokoa adierazi behar dugu:

- Aurrekontuaren aldaketak, egin ondoren onesten dira.

- Ez dago dagokion Nafarroako Gobernuko organoaren baimen zehatzik langileen kostuei buruz, Unibertsitatearen erreformari buruzko Lege Organikoaren 54.4 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

- Nominen adostea eta aurrekontuko kontabilitatean eta kontabilitate orokorrean dagokion egozpena aztertuta, behar bezala jaso dela deritzogu.

Langileen gastuen aurrekontuaren betetzeari buruzko ondorioetatik ondokoa gomendatzen dugu:

- *Aurrekontuko aldaketa guztiak gastua egin aurretik onets daitezela.*

- *Irakasleen gastuak eta irakasle ez direnenak Nafarroako Gobernuak onets ditzala, Unibertsitatearen Erreformari buruzko Lege Organikoan eza-erri bezala.*

- *Nominen aldizkako adostea egitea eta gastuen aurrekontuari egoki egotzi zaizkiola ziurtatzea.*

Langileen eremuko prozedurak

Langileen kudeaketa Giza Baliabideen Atalak egiten du. Atal hori lau bulegok osatzen dute: Administrazioako eta Zerbitzuetako Langileak

(PAS), Irakasle funtzionarioak, Irakasle kontratuak, Nominak eta Gizarte Segurantzak. Atal hau Unibertsitateko Komunitateko Zerbitzuaren menpe dago.

Lehenengo hiru bulegoek beraien izenak aipatzen dituen langileen kudeaketan aritzen dira; alegia: Administrazioako eta Zerbitzuetako langileak, irakasle kontratatuak eta funtzionarioak. Bestalde, Nominen eta Gizarte Segurantzaren bulegoak nominak eta gizarte aseguruak egiten ditu.

Kudeaketa, deialdiak, altak, bajak eta abar egiten dituzten hiru bulegoek, euren artean independenteak diren datu-baseak dituzte eta halaber, bereizita daude nominak eta gizarte aseguruak kudeatzen dituen programa informatikoetatik. Gauzak horrela, beharrezkoa da horietako bulego bakoitzean, datuak berriz sartzeko eta baita nominei dagokienean ere; ondorioz, akatsen eta informazio galeren arriskua sortzen da.

Gomendatzen dugu:

- *Langileak kudeatzeko sistema bateratua jar-tzea eta aldi berean, sistema hori kontabilitatekoa -rekin zuzenean konektatzea.*

- *Horretarako eskumena duen organoak administrazioako eta zerbitzuetako langileen eginkizuen eskuliburua berrikustea eta onestea.*

- *Irakasle eta ikertzaileen plantilla egiteko iriz-pideei buruzko akordioa garatzea, lanpostu berriak eskatzeko epeak zehaztuz eta baita eska-era horiei buruzko txostena, Gobernu Batzarrak horiei buruzkorik jakin aurretik, egin behar duen organoa zehaztuz.*

#### Plantilla organikoa

Ondoko taulan adierazi dugu irakasle eta ikertzaileen eta administrazioako eta zerbitzuetako langileen plantilla, 1998ko abenduaren 31n. Urteko batez bestekoa ere ematen dugu.

	1998-12-31	1998ko batez bestekoa
<b>IRAKASLE ETA IKERTZAILEAK (PDI)</b>		
Unibertsitateko katedradunak	43	41
Unibertsitateko titularrak	172	161
Unibertsitateko Eskolako katedradunak	18	17
Unibertsitateko Eskolako titularrak	84	86
<b>Irakasle iraunkorrek, guztira</b>	<b>317</b>	<b>305</b>
Bitarteko titularrak	1	5
Laguntzaileak	112	110
Elkartuak	265	249
Zerbitzu eginkizunetan	4	7
Bisitariak	2	2
<b>Irakasle ez-iraunkorrek, guztira</b>	<b>384</b>	<b>373</b>
<b>Irakasleak, guztira</b>	<b>701</b>	<b>678</b>
<b>ADMINISTRAZIOKO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK (PAS)</b>		
Karrerako funtzionarioak	164	164
Bitarteko funtzionarioak	55	51
Lan-kontratadunak	26	16
Goi-zuzendaritza	1	1
Zerbitzu eginkizunetan	23	22
Lanpostu hutsak	81	93
<b>Administrazioko eta zerbitzuetako langileak, guztira</b>	<b>350</b>	<b>347</b>
<b>Betetako lanpostuak, guztira</b>	<b>269</b>	<b>254</b>
<b>Plantillatik kanpo kontratatutako administrazio eta zerbitzuetako langileak</b>	<b>47</b>	<b>60</b>
<b>NOMINAKO LANGILEAK, GUZTIRA</b>	<b>1.017</b>	<b>992</b>
<b>Irakasle eta ikertzaileen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen zerrenda</b>	<b>2,22</b>	<b>2,16</b>

Beraz, abenduaren 31n, 1.017 pertsona ziren NUPen; horietatik 701 dira irakasle eta ikertzaileak, eta 316, berriz, administrazioko eta zerbitzuetako langileak.

Administrazioko eta zerbitzuetako langileen plantilla organikoa Gobernu Batzarrak onetsi zuen 1997ko abenduaren 22n eta Gizarte Kontseiluak

urte bereko abenduaren 31n. Hala ere, ez dago irakasle eta ikertzaileen plantillarik, formalki onetsita dagoenik.

*Gomendatzen dugu irakasle eta ikertzaileen plantilla urtero onestea.*

Hona hemen plantillaren bilakaera 1997. urtearekiko:

	1998-12-31	1997-12-31	Aldaketa, ehunekotan
<b>IRAKASLE ETA IKERTZAILEAK (PDI)</b>			
Unibertsitateko katedradunak	43	42	2,4
Unibertsitateko titularrak	172	146	17,8
Unibertsitateko Eskolako katedradunak	18	17	5,9
Unibertsitateko Eskolako titularrak	84	87	-3,4
<b>Irakasle iraunkorrak, guztira</b>	<b>317</b>	<b>292</b>	<b>8,6</b>
Bitarteko titularrak	1	12	-91,7
Laguntzaileak	112	114	-1,8
Elkartuak	265	216	12,5
Ospitaletako elkartuak	22	20	10,0
Zerbitzu eginkizunetan	4	9	-55,6
Bisitariak	2	2	0
<b>Irakasle ez iraunkorrak, guztira</b>	<b>384</b>	<b>373</b>	<b>2,9</b>
<b>Irakasleak, guztira</b>	<b>701</b>	<b>665</b>	<b>5,4</b>

1. oharra: 1998an 4 irakasle ziren zerbitzu berezietan edo zerbitzu eginkizunetan.

2. oharra: 1997an katedradun emeritu bat zegoen, eta 6 irakasle, zerbitzu berezietan edo zerbitzu eginkizunetan.

	1998-12-31	Betetako lanpostuak, ehunekotan	1997-12-31	Betetako lanpostuak, ehunekotan	Aldaketa, ehunekotan
<b>ADMINISTRAZIOKO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK (PAS)</b>					
Karrerako funtzionarioak	164	61	157	63	4,5
Bitarteko funtzionarioak	55	20	48	20	14,6
Lan-kontratudunak	26	10	18	7	44,4
Goi-mailako zuzendaritza	1	0	1	0	0
Zerbitzu eginkizunetan	23	9	25	10	-8
Lanpostu hutsak	81		77		5,2
<b>Plantillako administrazioko eta zerbitzuetako langileak, guztira</b>	<b>350</b>		<b>326</b>		<b>7,4</b>
<b>Betetako lanpostuak, guztira</b>	<b>269</b>	<b>100</b>	<b>249</b>	<b>100</b>	<b>8</b>
Plantillako betetze maila, ehunekotan (betetakoak/lanpostu guztiak)	77		76		0,6
Plantillatik kanpo kontratatutako administrazioko eta zerbitzuetako langileak	47		60		-21,7

Plantilla organikoa eta bere bilakaera aztertu ondoren, honako **ondorio hauek** atera ditugu:

- Lanpostuak lehiaketa bidez edo izendapen librearen bidez betetzen dira. Normalean, lehiaketa bidez betetzen dira; ondoko hauek, berriz, izendapen libre bidez betetzen dira: zerbitzuetako zuzendaritzak, ataletako burutzak, goi-mailako karguen idazkaritzak, kudeatzailea, ikuskatzailea, Gizarte Kontseiluko langileak, Liburutegiko zuzendaria eta zuzendariordea, zerbitzu informatikoeta-

ko zuzendaria eta Komunikazio Ataleko administrari bat.

- Lanpostu guztiek, bat ere utzi gabe, 420.738 eta 3.431.044 pezeta bitarteko berariazko osagarria dute. Osagarri horrekin, eta legeak ezarri bezala, ez dira ordaintzen soilik zenbait lanposturen aparteko baldintzak –zailtasun tekniko berezia, dedikazioa, erantzukizuna, bateraezintasuna, nekagarritasuna eta arriskugarritasuna dutelako– baizik eta Nafarroako Gobernuko funtzionarioen

ordainsariekiko berdinketa ere osagarri horrekin egiten da.

- Administrazioko eta zerbitzuetako langileen lanpostu betearen artean, bitarteko funtzionarioek betetzen duten ehunekoa nabarmetzen da; izan ere, ehuneko 20 egiten dute eta lan-kontratudunek, aldiz, ehuneko 10. Alegia, lanpostuen ehuneko 30 finkoak ez diren langileek betetzen dute.

1998ko ekitaldiko langileen altei dagokienez, ondorioztatu dugu, orokorrean, berdintasun, meritua, gaitasun eta publizitate printzipioak begiratzen dituzten prozedurak erabiltzen direla. Dena den, ondokoa nabarmendu behar da:

- Ez da enplegurako eskaintza publikorik egiten; beraz, ez da Estatutuako 99. artikulua betetzen, nahiz eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen plantilla ehuneko 30 baino gehiago igo den azken lau urte hauetan.

- Finkoak diren langileen ehuneko 12ak behin-behineko destinoak betetzen zituen, zerbitzu eginkizunetan; alegia, NUPeko administrazioko eta zerbitzuetako langileen plantillak, 1998ko abenduaren 31n, behin-behinekotasun itxura zuen, unibertsitatea gaztea eta hedatze eta sendotze bidean zelako.

*Gomendatzen dugu plantillaren profesionalizazioan aurrera egitea, aplikatzekoak diren legeak betetz. Horretarako beharrezkoa da lanpostu hutsak betetzeko lehiaketak deitzea eta, beharrezkoa bada, izendapen libre erabiltzea, betiere, plantilla organikoan hala ezarrita duten lanpostuetarako publizitate, berdintasun, meritua eta gaitasun baldintzak betetz.*

*Zerbitzu eginkizunak gehiegi erabiltzetik gordezea, praktikan eta legeko baldintzak alde batera utziz, lanpostuak zuzenean adjudikatze prozedura bilakatu baita NUPen.*

Bestalde, NUPek ez du erregelamenduzko araurik bere egitura organikoa ezartzeko eta berori osatzen duten unitateen eginkizunak definitzeko.

*Gomendatzen dugu, beraz, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egitura organikoa onestea; bertan, berori osatzen duten unitate organikoak eta beraien eginkizunak zehaztuko dira.*

Nominen testa, ordainsari finkoak, aldakorrak eta atxikipenak

Langile taldeen lansari-egitura aztertu dugu eta ondorio hauetara iritsi gara:

#### **A) Administrazioko eta Zerbitzuetako langileak (PAS)**

- Nafarroak ez du arautu NUPeko administrazioko eta zerbitzuetako langileen araubidea, ez eta Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren aplikazio eremuan barneratu ere. Horrela, beraien araubidea Estatuko legediak zehazten du eta, bitxia bada ere, ordainsarien egitura ere haren arabera da. Esan beharra dago Estatuko lansari-araubidea guztiz ezberdina dela Nafarroakoarekiko.

- Beraz, Nafarroako Unibertsitate Publiko administrazioko eta zerbitzuetako funtzionarioen lansari-egitura, bai eta bere funtzionario-harremana arautzen duen araubidea ere, Estatuko Administrazioko eta haren erakunde autonomoetako langile zibilei aplikatzeko den Estatuko legediak zehazten du; alegia, Funtzio Publikoaren Erreformatarako Neurri buruzko 30/1984 Legeak.

- 1994ko uztailaren 18ko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez, langile horiek osagarri jakin batzuk jasotzen dituzte NUPeko administrazioko eta zerbitzuetako funtzionarioen ordainsarien eta Nafarroako Gobernu funtzionarioek antzeko lanpostuetan jasotzen dituzten ordainsarien arteko berdintasuna lortzearen.

- Administrazio publiko orok bezala, NUPek ere, ezin du lege ezarri zaion ordainsarien egitura aldatu, hori funtzionarioen estatutua arautzen duen Legeari baitagokio. Bada, esan bezala, Gobernu Batzarraren 1994ko uztailaren 18ko erabakiaren bidez, ordainsarien araubide berezia ezarri zen. Araubide hori Estatuko sistemaren egituratik abiatzen da, familia laguntzako eta dedikazio eskusiboko Nafarroako ordainketa kontzeptuak gaineratzen dizkio, eta, azkenik, lanaldi zatiaren eta parekatzearen osagarriak "ex novo" sortzen ditu.

Gure ustez, erabaki horrek indarrean dagoen legedia urratzen du, lansari-egitura berezia sortzen baitu, ordainsarien bi sistema ezberdin bateratu nahian –Estatukoa eta Nafarroakoa–. Gure ustez, egitura hori lege bidez arautu edo aldatu behar da.

*Egoera hori araei egokitzeko, gomendatzen dugu beharrezko neurriak hartzea eta, behar izanez gero, beharrezko lege aldaketak egitea; azken horien artean, kontuan har daiteke langile horiek Nafarroako Funtzio Publikoko Estatutuan sartzea.*

Aurreko lerroketan azaldu bezala, administrazioko eta zerbitzuetako langileei ordaindutako ordainsariekin behar besteko legeko babesik ez



badute ere, kalkuluek eta nominako atxikipenek aipatutako akordioari eta aplikatzekoa den gainerrako araudiari jarraitzen diote. Honako hauek dira salbuespenak:

- Aparteko orduak ez ditu aldeztu aurretik organo eskudun batek onesten eta horregatik, ordaindutako zenbatekoa Nafarroako eta Estatuko funtzionarioentzako ezarritakoa baino handiagoa da.

- Unibertsitateko idazkariorde nagusiaren karguak osagarri bat du, baina kargu eta osagarri hori ez da plantilla organikoan jasotzen.

- Kudeatzailearen ordainsariak plantilla organiko lanpostuen zerrendan azaltzen direnak baino handiagoak dira.

Ondokoa gomendatzen dugu:

- *Administrazioko eta zerbitzuetako langileen aparteko orduak onestea, horiek egin aurretik.*

- *Administrazioko eta zerbitzuetako langile guztien osagarriak eta ordainsari errealak plantilla organikoan jasotzea.*

## **B) Unibertsitateko katedradunak**

Oro har, ordainsariak legeak ezarritakoari jarraitzen diote (1086/1984 Errege Dekretua, 30/1984 Legea eta 1998rako Aurrekontuei buruzko Legea) eta kalkuluek eta nominetako atxikipenak zuzenak dira.

Halere, ondoko ahultasun hauek antzematen dira barne kontrolari dagokionez eta baita ere aplikatzekoa den araudiarekiko egokitzeari dagokionez:

- Produktibitate osagarria delakoa ez dago behar beste kontrolatua. Osagarri horrekin ordaintzen da sei urtean behin egiten den ikerketa lana, Batzorde Nazional batek baieztatu ebaluazioa egiten, gehienez ere 5 ikerketa-tarte arte.

Ebaluazio horiek irakasleek bere borondatez eskatzen dituzte eta baieztatu edo ezeztatu erantzuna interesatuei, banaka, ematen zaie, eta dagokion Unibertsitateari ere langileen ebaluazio positibo guztiengatik, baina eskuratutako ikerketa-tartea zehaztu gabe. Horrek eta programak langileak kudeatzeko duen eskasiak eragozten dute ordainsari osagarri horren kontrola.

*Gomendatzen dugu produktibitate osagarrien kontrol egokia egitea, behar bezala onetsitako zerrenda bat eginez urtero, eta urtero gertatzen diren aldaketak behar bezala agerian jasotzea.*

- Irakasleak parekatzeko osagarria. Kontzeptu horregatik unibertsitateko katedradunek 66.757 pezeta jaso dituzte hilean 1998an zehar. Nominan

“kontura egindako dirusarrerak” izenarekin agertzen da. Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko abenduaren 1eko 19/1998 Foru Legeak, bere xedapen iragankorren ezarri zuen: “1998ko aurrekontu ekitaldirako baimendutako gehieneko zenbateko osoa, 1998ko urtarrilaren 1etik aitzina ondorioak izateko aplikatu ahalko da, 1. artikuluan xedatutakoarekin bat.” Horrek esan nahi du, Gizarte Kontseiluak ordainketa kontzeptu horiek banaka ematea erabaki dezakeela, irakaskuntzako edo ikerketako eskakizunengatik edo meritu garrantzitsuengatik. Kontseilu horrek, 1998ko abenduaren 31n egindako bilkuran, ondokoa erabaki zuen: “2. 1998an zehar konturako entrega gisa ordaindutako kopuruak ordainduta direla ulertuko da, Unibertsitatearen Erreformari buruzko Legearen 46.2 artikuluan jasotako irakaskuntzako eta ikerketako eskakizunei jarraikiz eginez gero.”

Gure iritziz, Gizarte Kontseiluaren erabakiak, idatz-zati horretan, aipatutako foru legean ezarritakoari kontra egiten dio, 1998an arautu behar baitzen, lege-aginduari jarraituz. Hala, osagarri hori banaka emateko irizpideak ezarri, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aitzina aplikatu behar zen.

- Ordainketa kontzeptuak banaka ematea, abenduaren 1eko 19/1998 Foru Legean aurreikusten diren irakaskuntzako eta ikerketako eskakizunengatik edo meritu garrantzitsuengatik.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko abenduaren 1eko 19/1998 Foru Legeak 1. artikuluan ezartzen duenez, “Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak, Gobernu Batzordeak proposaturik, Unibertsitatearen Erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 46.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, aipatutako Lege Organikoaren 33. artikuluan 1. idatz-zatian esaten diren kidegoetakoak diren irakasle funtzionarioei ordainketa kontzeptuak emateko erabakia hartu ahalko du.” Unibertsitatearen Erreformari buruzko Lege Organikoaren 46.2 artikulua dioenez, erabaki ahalko da “... bestelako ordainketa kontzeptuak banaka ematea, irakaskuntzako eta ikerketako eskakizunengatik edo meritu garrantzitsuengatik.”

1999ko ekainaren 2an, Gizarte Kontseiluak erabakita, ordainketa osagarri horiek emateko irizpideak ezarri ziren, urte bereko urtarrilaren 1etik aitzina aplikatzeko.

Ordainketa kontzeptu horiek, meritu indibidualengatik, salbuespen gisa aplikatzeko diseinatutako sistemak, funtsezko alderdiei dagokienez, 1086/1989 Errege Dekretuan ezarritako berariazko osagarria eta produktibitateko bikoiztea dakar

praktikan. Hala, nabarmenki gehitzen dira eta irakasle kidegoetako funtzionario guztiek jasotzen dituzte.

Beraz, Unibertsitatearen Erreformari buruzko Legearen 46.2 artikulua ondoz, irakaskuntzako eta ikerketako eskakizunengatik edo meritu garrantzitsuenengatik ematen diren ordainketen banakotasun eta salbuespenezko araubidea aldatu egin da, eta arauak berak ezartzen duen sistemaren uniformetasuna puskatu. Sistema orokorraren arabera ordaindutako egoeretatik ezberdinak diren egoera partikularrik egon gabe, lortu dena ordainsariak orokorrean igotzea izan da eta horren onuradun irakasle funtzionario guztiak dira. Hori, jakina, Unibertsitatearen Erreformari buruzko Legeak dioenari eta haren izpirituari nekez egokitzen zaio.

*Gomendatzen dugu egoera hori arautzeko behar diren neurriak hartzea.*

**C)** Unibertsitateko titularrak eta Unibertsitateko Eskolako titular eta katedradunak

Oro har, ordainketak indarrean dagoen legedira egokitzen dira eta kalkuluak eta nominako atxikipenak zuzenak dira.

Dena den, bi talde horiek, unibertsitateko katedradunek bezala, irakasleak parekatzeko osagarria jasotzen dute. Osagarri hori, ondoren, irakaskuntzako eta ikerketako meritu individual bilakatzen da. Hala, hilabeteko 54.074 pezetako kopurua jasotzen dute unibertsitateko titularrak eta Unibertsitateko Eskolako katedradunek; hilean 45.771 pezeta, aldiz, Unibertsitateko Eskolako titularrak. Azken horientzako, aurreko epigrafeko ondorioak aplikagarriak dira.

Langileen arloko gorabeherak eta ebazteke dauden errekursoak

Langileen arloan eta NUPeko erantzukizunari buruzko beste batzuetan ebazteke dauden errekursoen zerrenda aztertuta, ondoriozta daiteke kontuan hartu beharreko gorabeherak ez direla diru-kopuru handikoak. Salbuespena da, Unibertsitatearen kontratuz kanpoko erantzukizun kasu bat, kanpusean gertatutako istripu bat dela-eta. Bada, gorabehera hori 7 milioitakoa litzateke, demandatzailearen tesia osotasunean onartuko balitz.

**V.2.2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea**

2. kapitulu honetan egindako gastua 1.568 milioitakoa izan da. Hona hemen gastua, zehazki eta aurreko ekitaldiarekiko kopuru konparagarriekin (pezetak, milioitan):

Artikuluak	Aitortutako obligazioak 1997	Aitortutako obligazioak 1998	Aldaketa, ehunekotan
Errentamenduak	11	10	(10,75)
Konponketa eta kontserbazioa	164	182	11,14
Hornidurako materiala eta bestelakoak	1.177	1.250	6,19
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	84	92	9,24
Argitalpenak editatu eta banatzea	30	34	13,55
2. kapitulua, guztira	1.466	1.568	6,94

Hornidurako materiala eta bestelakoak izeneko artikulutik, garrantzia ekonomiko handiena duten kontzeptuak aztertu ditugu eta honako hau ondorioztatu dugu:

#### Material suntsikorra

“Hornidurako materiala eta bestelakoak” kontzeptuaren barruan kontabilizatua, bere baitan biltzen ditu bulegoko materiala, prentsa eta bestelako argitalpenak, inbentarioan sartzekoa ez den material informatikoa, material tekniko berezia eta bestelako hornigaiak.

Material suntsikorra erosteko prozedurak aztertuta, arrazoizkoak direla deritzegu. Dena den, material tekniko eta berezia erosteari buruz (41,5 milioi), honakoa adierazi behar dugu:

- Badira eskaerarik gabeko erosketak, sinadurarik ez dute edo faktura egin ondoren egiten dira.
- Kasu batzuetan, albaranak falta dira.
- Albarana baino lehenagoko fakturak daude. Kasu batzuetan, ez dute departamentuko ardura-dunaren sinadurarik; beste batzuetan, garraio gastuei aurre egitea onartzen da, nahiz eta justu kontrakoa egitea ezarrita egon.

*Gomendatzen dugu, kasu guztietan, material suntsikorra erosteko araudiari jarraitzea. Araudi hori aurrekontuaren betetze-oinarrietan eta errektoreak urtarrilaren 14an emandako 23/1998 Ebazpenean ezarrita dago.*

#### Ikerketa eta lan teknikoak

Ekitaldian, kontzeptu horrek 89,2 milioi ditu aitortuta.

Epigrafe honi dagozkion prozedurak aztertu ondoren, arrazoizkoak direla deritzegu. Baina baditu salbuespenak:

- 1998ko kontuetan ez da informaziorik ematen gastuko unitate funtzionalak (UFG) deiturikoen estatutako kredituei buruz, aurrekontuaren betetze-oinarriek ezartzen duten bezala.
- Kasu batzuetan, baimena eta erabilpena fakturako dataren ondorengoak dira.

- Segurtasuneko eta garbiketako kontratuak erantzukizun zibileko aseguruak izan behar dute, adjudikazio-hartzaileak sinatuta. Dena den, 1998an ez zeuden indarrean.

Gomendatzen dugu:

- *Unitate bakoitzak bere jarduera konkretuetan egindako gastuen zerrenda zehaztua egitea, bete - tze oinarriek ezartzen duten bezala.*

- *Betiere, ezarritako prozedurak jarraitzea, hau da, gastua egin aurretik, dagokion baimena izatea eta gastuaren kontu-hartzailatza egitea.*

- *Urtero indarrean dauden erantzukizun zibile - ko polizak eskatzea segurtasuneko eta garbiketa - ko kontratuen adjudikazio-hartzaileei.*

#### Ikerketa proiektuak

Proiektuekin zerikusia duten gastu guztiak aurrekontuko "Ekitaldiko proiektuak eta lanak" izeneko kontusailari egozten zaizkio. Kontusail horretan kontabilizatutako gastuak finantziario atxikia duten gastutzat jotzen dira, eta beraz, 159 milioitako hasierako aurrekontuari 1997ko berariazko gerakina gehitu zitzaion -188,4 milioi-, eta 193,5 milioitako kreditua sortu zen ekitaldi horretan jasotako finantziario atxikiagatik.

Beraz, kontusail horren behin betiko aurrekontua 541 milioitara iritsi zen; 315,1 milioitako betebeharrak aitortu ziren eta gastatu gabeko 225,8 milioitako kreditua 1999ko ekitaldian sartu zen.

Unibertsitatearen Erreformari buruzko Legearen 11 eta 45.1 artikuluan, 1930/1984 Errege Dekretuan eta NUPeko Estatutuen 133. artikuluan arautzen dira.

Egindako azterketatik eta kontrolari dagokionez, ondoko ahultasun hauek antzeman ditugu:

Estatutuen 133. artikulua garatuko duen prozedura orokorrik ez izateak bide ematen du proiektu horien kudeaketa modu ezberdinean ulertzeko. Horien kudeaketaren inguruko zenbait alderdi lausoak dira, adibidez, gastu onargarriak, Gerentzia eta Kontabilitatearekiko harremana, Aholkularitza Juridikoaren eta Kontuhartzaitzaren txostenak, proiektuen zuzendari diren irakasleen ordainsarien legezko mugen kontrola; bada, horiek guztiak behar bezala arautu behar dira.

Ikerketetako Emaitzen Transferentzien Bulegoak (OTRI) baliagarria izan daitekeen prozedura bat garatu du, zenbait puntutan hobetu beharra badago ere: Gerentzia eta Kontabilitatearekiko harremanak eta komunikazioa, proiektuak bukatu direla jakinaraztea, kontabilitateko eta beste zerbitzu batzuetako proiektuen datu-baseak hobetzea.

Azken batean, esan daiteke kontabilitate sistemako gabeziak, 1998ko ekitaldian, bai eta prozedura orokor eta oso bat ez izateak ere, eragotzi egin digutela ikerketa proiektuekin zerikusia duten eragiketa guztiak egoki eta osotasunean erregistratu eta kontabilizatzen direla ziurtatzea.

*Gomendatzen dugu ikerketa proiektuen kudea - ketari buruzko arauketa osatzea, horien kudeaketa prozesuak hobetuz, OTRIren proposamenei jarraiki.*

#### **V.2.3. Transferentzia arrunten gastuak**

359,4 milioitakoa hasierako aurrekontua, 22,1 milioitako aurrekontu-aldaketa batzuekin, 381,5 milioitako behin betiko aurrekontu bilakatu da.

Betetako aurrekontua 319,5 milioitakoa da, hau da, betetzearen ehuneko 84.

Gastuen zati handiena NUPek ikasle eta irakasleei, beka edo sari gisa, ematen dizkien laguntzek osatzen dute. Laguntza horiek departamentuekin lankidetzan aritzeko, ikerketarako, bidai-poltsetarako eta abar ematen dira eta gutxi gorabehera 240 milioitara iristen dira. Erakundeei emandako dirulaguntzak, 30 milioi, ere biltzen ditu -horien artean aipagarriena, Unibertsitate-Gizarte Fundazioarena-, eta azkenik, elkartrukeko eta lankidetzako programetatik sortutako gastuak, 20 milioi.

Egindako azterketatik, honakoa ondorioztatu dugu:

- Gastu horietako batzuk, pertsonari edo erakundeei emandako laguntza gisa kontabilizatu direnak, gastu arruntei dagokien 2. kapituluan jaso beharko liriteke, NUPen eta bere departamentuen funtzionamenduaren gastu propioak baitira.

- Barne kontroleko sisteman gabeziak antzeman ditugu: ez dago funtzioen behar bezalako bereizketarik, pertsona bera arduratzen baita onuradunen datu-baseen mantenimenduz, ordainketa aginduak bideratzeaz eta kontabilizazioaz; gainera, ez dira datuak konparatzen zentro kudeatzailearen eta kontabilitatearen artean.

Azaldutako ondorio horiek kontuan hartuz, honakoa gomendatzen dugu:

- *Laguntza mota horietan jarraitu beharreko prozedurak berrikusi eta idatziz jasotzea. Prozedura horiek bermatu beharko dute burutu beharreko eginkizunen arteko bereizketa eta baita laguntza horien kontrol egokia ere.*

• *Laguntzak kudeatzen dituzten zentroen eta kontabilitatearen artean, aldizkako adoste eta egiaztapenak egitea.*

#### V.2.4. Inbertsio errealak

NUPeko inbertsio gastuak, 1998ko ekitaldian, 1.078 milioitakoak dira eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

Artikuluak	Aitortutako obligazioak	Ordainketak	Ordaintzeke dauden obligazioak
Eraikinak	199	23	176
Makinak, instalazioak eta tresneria	9	8	0
Altzariak eta tresnak	54	11	43
Informazio prozesuetarako ekipoa	106	13	93
Irakaskuntzako ekipoa	375	166	209
Ikerketako ekipoa	142	12	130
Departamentuetako inbertsioak/proiektua	1	0	2
Aldizkariak	120	107	12
Antzinakoak fondo bibliografikoak	4	4	1
Liburuak	68	36	32
6. kapitulua, guztira	1.078	380	698

Inbentarioko materiala erosteko kudeaketa-prozedurak aurrekontuko betetze-oinarrietan arautzen dira, bai eta errektoreak urtarrilaren 14an onetsitako 23/1998 Ebazpenean ere.

#### Eraikinak

Hemen biltzen dira aire egokitua ezartzeko obrak, kirol instalazioen 3. fasea (igerilekua) eta obra txikiak unibertsitateko eraikin batzuetan.

“Aire egokituari” dagokionez, 1997an adjudikatu zen proiektuaren prestaketa. 1998ko urriaren 27an, lehiaketa bidez, obra adjudikatu zen 871 milioi pezetatan. 1998an egiaztagiria bakarra jaso zen, 136 milioikoa bera. Prozedurak legeak ezarritakoak behar bezala betetzen ditu.

“Kirol instalazioak” egiteko obren kontratazioa prozedura negoziatuaren bidez egin zen, publikataterik gabe, 1998ko maiatzaren 18an eta 225 milioitan. Adjudikazio prozedura horren arrazoiak azaltzen dituen txosten juridikoa badago; bertan aipatzen denez, eraikuntza unitate bakarraren fase bat da eta bereiz egiteak arazo tekniko larriak ekarriko lituzke. Ez dago zuinketa aktaririk eta obren finantziazioan atzerapen handiak daude, 13 hilabete baino lehenago bukatu behar baitzen.

*Gomendatzen dugu Kontratuei buruzko Foru Legean ezarritako baldintza guztiak eta gainerako araudian ezarritakoak betetzea.*

#### Altzariak eta tresnak

Epigrafe honi egotzitako gastuek, 1998an, 53,6 milioi egiten dituzte.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da kontabilizatutako zenbatekoak arrazoizkoak direla. Dena den, prozedurari buruz ondokoa aipatu behar dugu:

- Adjudikaziorako irizpideak ez dira pleguetan baloratzen. Kasuren batean irizpide horiek ez dira gero kontuan hartzen.

- Eskaerarik ez duen erosketa espedienteak daude, eta batzuetan, bertan agertzen den data fakturarena baino beranduagoa da.

- Espediente batzuetan albarana falta da edo sinatu gabe dago.

- Batzuetan ez dira eginkizunak behar bezala bereizten eta pertsona berak sinatzen du onarpenaren akta, albarana eta faktura.

*Gomendatzen dugu eskatzea inbentarioko materiala erosteko espediente orotan legeak eza-rritako baldintza guztiak bete daitezela eta errektoreak urtarrilaren 14ko 23/1998 Ebazpenaren bidez ezarritako prozedurari jarraitzea.*

#### Irakaskuntzako ekipoa

Epigrafe honek 374,8 milioi pezetatako aitortutako obligazioak ditu.

Erosketen zenbatekoaren arabera ezberdinak diren prozedurak aztertzen ditugu jarraian.

- 500.000 pezetatik beherako eskaeretan departamentuek zuzenean egiten dute erosketa.

Kasu horietan, gure azterketaren arabera, eza-rritako prozedurak behar bezala betetzen dira.

- 500.000 eta 2 milioi bitarteko eskaeretan, Gerentziak egiten du erosketa, lehiaketa-enkante bidez edo zuzenean, hiru eskaintza eskatuz.

Erosketa mota horietan, gure azterketaren arabera, prozedurak behar bezala betetzen dira, albaranaren kasuan salbu, espediente gehienetan ez baita halakorik.

*Gomendatzen dugu 500.000 eta 2.000.000 pezeta bitarteko erosketa guztietan albarana eskatzea eta espedientearen gainerako agiriekin batera artxibatzea, ezarritako prozedurek eskatzen duten bezala.*

- 2 milioitik gorako eskaerak Gerentziaren bitartez egiten dira, lehiaketa edo enkante bidez.

Gure azterketaren arabera, espedienteek ondoko gabeziak dituzte: pleguetan ezarritako

adjudikaziorako irizpideak baloratu gabe daude; batzuetan ez dago albaranik; beste batzuetan, fakturaren eguna kontratua sinatu zenekoa baino arinagokoa da.

*Gomendatzen dugu kasu guztietan eskatzea legeak ezarritako prozedurak bete daitezela, arazo, diru-kopuru handiko erosketak direnean, 2 milioitik gorako erosketak hauetan bezala. Halakotan, erosketek haztatutako adjudikazio irizpideak izan behar dituzte, eta baita kontu-hartzaitzako aginduzko txostena eta behar bezala sinatutako kontratua –ondasuna jaso baino lehenago– dago-kion albaran eta fakturarekin.*

#### Aldizkariak, funts bibliografikoak eta liburukoak

Kontzeptu honek 120 milioitako, 4 eta 60 milioitako aitortutako eskubideak ditu 1998an.

Erosteko prozedurak aztertuta, behar bezalakoak direla deritzegu.

Dena den, esan beharra dago Zuzenbide Publikoko eta Kimikako departamentuei eta partzialki nekazaritzakoak ez diren ingenieritzei dagozkien 35.000 liburuki daudela, katalogazio prozesuan; hori dela-eta bibliografia hori eskuratzeari zaila da.

*Gomendatzen dugu material bibliografiko horren katalogazio prozesuarekin jarraitzea eta horrela, NUPeko funts bibliografiko guztien zentralizazioa osatzea.*

*Gomendatzen dugu, azkenik, erosketak eta inbertsioen kapituluari dagokionez, NUPen 1998ko abuztutik aitzina aplikatzekoa den Kontratu buruzko Foru Legean ezarritako baldintzak betetzea.*

### V.3. BALANTZEAREN ANALISIA

#### **V.3.1. Diruzaintza eta aldi baterako finantza-inbertsioak**

Ondoko hauek dira NUPeko fondo likidoak, 1998ko abenduaren 31ko balantzearen arabera (pezetak, milioitan):

	Saldoa 1998-12-31n
Bankuak	1.081
Kutxa-eskudirutan	0,7
Aldi baterako finantza-inbertsioak	306,8
<b>Guztira</b>	<b>1.388,5</b>

#### Bankuak

1998ko ekitaldiko kobraketa eta ordainketen kontabilizazioa ondoren egin zen, ekitaldiko diru-sarrera eta gastu gehienak kontabilitate sistema aldatu aurretiko prozedurarekin –ez zen bankuen kontrolik egiten– egin ondoren. Kobraketa eta ordainketa guztien kontabilizatutako saldoak bankuetako saldo errealekiko 277.144 pezetako ezberdintasuna zuen, laburpenen arabera, eta finantza-gastu bezala erregistratu zen.

Alor horretan egin dugun azterketatik honako ondorio hauek atera ditugu:

- Ez da diruzaintzako kudeaketarik egin. Ez dago kontu bakoitzaren ezaugarri eta ordainsariak jasotzen dituen artxibo eguneraturik. Bankuko dirusarreraren zuzentasuna ez da egiaztatzen; kontabilitate-diruzaintzan ez dira bankuko laburpen guztiak artxibatzen; eta ez dago alor horretako arduradunik.

- Banketxe batean, 1998ko abenduaren 31n, 1.772.769 pezetako saldoa duen kontu bat dago, baina ez da NUPeko kontabilitatean agertzen. Nazioarteko Merkataritzako Masterraren gastu eta dirusarreraren kontuari dagokiona da eta horiek ez dira kontabilitatetik kontrolatzen.

- 1998ko ekitaldiaren bukaeratik aitzina erabilitako kontabilitate sistemak kontroleko mekanismoak ditu bi aldiz ez ordaintzeko, ordainketa okerrak saihesteko eta hirugarrenak zuzen identifikatzeko. Dena den, kontrol horretatik kanpo gelditzen dira frogatu beharreko ordainketak eta presakoak direnak, alegia, kontabilitateko prozedura normala burutu aurretik egin beharrekoak. Kasu horietan ez dago ordainketaren zuzentasuna eta berori kontabilitatean erregistratzea bermatuko duen prozedura egonkorrik. Sistematik kanpo daude, halaber, nominetako ordainketak.

- Kontabilitate eta diruzaintzaren artean ez dago eginkizunen bereizketarik. Pertsona berberrek gastuak kontabilizatu eta ordainketak egiteko aginduak ematen dituzte.

#### Kutxa

Kutxaren alor hau aztertu ondoren, ondoko ondorioak atera ditugu:

- Kutxaren bidez ez da kobraketa eta ordainketen kontrolik egiten; ez dago kutxako libururik, bertan egindako eragiketak jasotzeko eta, beraz, ez da kontaketarik egiten.

- Kutxako kontua, 1998ko ekitaldian, departamentuetako kutxa finkoetako aurrerakinen justifikazioa erregistratzeko erabili zen eta baita ikerketarako proiektuetako aurrerakinetarako. Beraz, bi

kontzeptu horiek ez dute aurreko lerrokadan aipatutako kontabilitateko kontrolik jasotzen.

#### Aldi baterako finantza-inbertsioak

Ondoko kontzeptu hauek sartzen dira hemen:

	Saldoa 1998-12-31n (pezetak, milioitan)
Epe laburrerako baloreen zorroa	105,8
CANeko inbertsio fondoak	200
Langileendako soldata aurrerakinak	0,9
Guztira	306,7

Epe laburrerako baloreen zorroa eta CANeko inbertsio fondoa behar bezala erregistraturik daude.

Langileendako soldaten aurrerakinei dagokienez, saldoaren zati bat, hutsegite baten ondorioz, aurrekontukoak ez diren zordunen kontuan sartuta da; beraz, 1998-12-31ko kontabilitateko saldoa 8 milioitakoa izanen litzateke. Kontabilitateko saldo hori eta aurrekontuan jasotako aurrerakinak itzultearen ondoriozko urteko dirusarrerak ez datoz bat nominen kudeaketa zentroak emandako datuekin. Horren arrazoia kontrolerako eta bi zentro horien artean informazioa trukatzeko prozedura egokien gabezia dago.

Horrenbestez, diruzaintza eta finantza-inbertsioen alor horrek berregituratzeko beharra du eta baita kontrol egokiak ezartzeko ere. Ildo horretatik doaz ondoko gomendio hauek:

- *Diruzaintzako alorreko arduradun bat izenda-tzea.*
- *Bankuen eta eskudiruko kutzaren alorrerako prozedura egokiak idatziz jasotzea, bai eta langileendako aurrerakineterako ere.*
- *Bankuko gordailuengatik eta kontu korrongoengatik banketxeekin hitzartutako korrituak jasota uztea eta korritu horien likidazioak aztertzea.*
- *Kontuan ordaindu gabeko batez besteko saldo handiak mantentzea saihestea.*
- *Kutzako eta bankuetako dokumentuen artxi-bo egokia prestatzea eta hiler, bankuarekin bateratzeak egitea eta baita kutzako kontaketak ere.*
- *Bankuko kontu guztiak kontabilitatean jasotzea.*
- *Ordainketa okerren eta ordainketa bikoitzen kontrolean sartzeari nominen ordainketak, premiazko ordainketak eta frogatu beharreko aurrerakinak.*

- *Eginkizunen bereizketa egokia egitea, kontabilitateko arduradunen eta ordainketak egiteko agindua ematearen ardura dutenen artean.*

- *Langileendako aurrerakinen saldo zuzena zehazteko beharrezko analisiak egitea eta nominak kudeatzen dituen zentroaren eta kontabilitatearen artean informazioa kontrolatu eta kontrastatzeko prozedura bat ezartzea.*

#### **V.3.2. Ibilgetua**

##### Ibilgetu materiala eta ez-materiala

1998-12-31ko egoeraren balantzean egindako azterketatik ondoko ondorioak atera ditugu:

- Ez dago zuzeneko konexio informatikorik inbentarioaren eta kontabilitatearen artean, ez eta ondasunak erregistratzeko irizpide homogeneorik ere, inbentariokoa ez den material hori inbertsio gastu gisa erregistratzen baita eta aurrekontuan material suntsikortzat jotzen direnak inbentarioan sartuta baitaude. Gainera inbentariorako ondasunen sailkapena ez dator bat aurrekontuko inbertsiorako kontzeptuekin, ez eta balantzeko kontuekin ere.

- Ez dira ikerketa proiektuei atxikitako ondasun inbentariagarriak kontrolatzen. Ez dira egiaztatzen eta, beraz, ez dira etiketatzen ikerketa proiektuak garatzeko erositako ondasun inbentariagarriak.

- Inbentariagarritzat jotzen dira unitate bakoitzeko prezioa 25.000 pezeta baino handiagoa duten erosketa guztiak. Ez dira inbentarioan sartzen talde homogeneoa osatzen duten elementuak, nahiz eta unitateko prezioa aipatutako kopurua baino txikiagoa izan, ezta ere instalazioak, obrak eta tabikeri mugikorra.

- Beste ibilgetu material bateko kontuak inbentariagarriak ez diren 1996 eta 1997ko material eta erreformak jasotzen ditu, 143 milioi pezetakoak. Halaber, irakasleen eta ikertzaileen materiala, 1997koa, ere biltzen du, 587 milioitakoa; material hori berriz sailkatu beharko litzateke.

- Balantzean ikerketa liburueterako 53 milioiko zenbateko bat birritan erregistratu da.

*Gomendatzen dugu balantzeko ondare-masa horren azterketa sakon bat egitea, batez ere NUPen jabetzapekoak diren ondasunak kontrolatzeko, inbentarioa kontabilitatearekin lotuko duen kontabilitateko prozedura bat garatuz. Halaber, gomendatzen dugu amortizazio egokiak egitea.*

Lan horren garrantzia ez da zifra arrazoizkoak ematea ekitaldi amaierako egoeraren balantzean, baizik eta NUPen jabetzapekoak diren ondasunen kontrol egokia bermatzea.

Finantza-inbertsio iraunkorrak

Kontu hau balantzeko ibilgetuaren barruan jasotzen da, 360 milioirekin; baina, berez zordunen ingurukoa da.

Hona hemen atalka (pezetak, milioitan):

1998an irakasleei ordaindutako osagarria, Nafarroako Gobernutik jaso beharrekoa	187,6
Hezkuntzako Ministeriotik jaso beharreko dirusarrerak bekengatik	168
Epe luzerako baloreen zorroa	4,6
<b>Guztira</b>	<b>360,2</b>

Irakasleen osagarria eta Hezkuntza eta Zientzia Ministeriotik jaso beharreko dirusarrerak epigrafe honetan bildu dira diruzaintzako gerakinean sar ez zitezten, horren kobraketa zaila edo epe luzerakoa baita.

Dena den, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren kobraketa 1999ko martxoan egiten da.

Irakasleei 1998an kontura ordaindutako osagarrien kobragarritasunari dagokionez (187,6 milioi), langileen gastuetan, V.2.1. epigrafean, egindako iruzkinetara jo bedi.

1997an zehar irakasleei kontura ordaindutako osagarria (168 milioi) aurrekontuko zordunetan jasotzen da.

*Gomendatzen dugu kontu hauek balantzean dagokien epigrafean berriz sailkatzea.*

**V.3.3. Zordunak eta hartzekodunak****Zordunak**

Hona hemen balantzeko zordunen saldoa (pezetak, milioitan):

Aurrekontuko zordunak	1.108
Aurrekontukoak ez diren zordunak	9
<b>Guztira</b>	<b>1.117</b>

Gure azterketatik ondorioztatzen dugu zordunen saldoak arrazoizkoak direla; dena den, bada salbuespenik:

- 1997an irakasleei ordaindutako osagarriaren kobragarritasuna, aurrekontuko zordun gisa hartutakoa (168 milioi).
- Matrikulengatik kobratzeko kontuetan 51 milioi gehiago kobratzearen akatsa.
- Aurrekontukoak ez diren zordunen saldoan sartutako funtzionarioen aurrerakinak (7 milioi).

Hartzekodunak

Hartzekodunen zenbatekoa, balantzearen egunean, 1.110 milioitakoa da.

Gure azterketaren ondorioen arabera, oro har alor horretako barne-kontrol egokirik ez izateak eta ordainketak egiteko prozedurei buruz V.3.1. puntuan egindako gomendioek, 1998-12-31ko balantzeko zifren arrazoizkotasunari buruzko iritzia ematea eragozten digute.

**V.4. DIRUZAINZAKO GERAKINA**

NUPen Diruzaintzako Gerakinaren egoera, 1998ko abenduaren 31n, 1.095 milioitakoa da.

Gerakin horretan ez dira sartzen Nafarroako Gobernuak aurrekontutik kanpoko zordunen 187,6 milioi, irakasleak parekatzeko 1998ko osagarri-gatik, horien kobraketa zaila dela uste baita. Hala ere, ez dira sartzen Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko zordunen 168 milioi, bekengatik, horien kobraketa epe luzerakoa dela uste baita.

Gure ustez, diruzaintzako gerakin hori ondoko arrazoi hauengatik doitu beharko da:

	Pezetak, milioitan
Kobratzen zailak diren zordunak, 1997ko irakasleen osagarriari dagozkionak	168
Matrikulen dirusarreretan kontabilizatutako zenbatekoaren akatsa	51
Eskudiruko kutxan ez dagoen saldoa	0,6
Akatsak kontabilitateko egozteetan	(3,5)
Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren beken dirusarrerak (1999an kobratzen dira)	(168)
<b>Guztira</b>	<b>48,1</b>

Diruzaintzako gerakina, 1998ko abenduaren 31n eta proposatutako aldaketekin 1.047 milioitakoa izanen da.

Diruzaintzako gerakina NUP finantzatzeko baliabidea da. Dena den, berezi beharra dago diruzaintzako atxikitako gerakina eta erabilera askea duena. Hona hemen (pezetak, milioitan):

	S/NUP	Doitua
Diruzaintzako atxikitako gerakina	699	699
Atxikitako finantziario gastuengatik	293	
Gizarte Kontseiluak atxikita	406	
Diruzaintzako atxiki gabeko gerakina	396	348
<b>Guztira</b>	<b>1.095</b>	<b>1.047</b>

Diruzaintzako atxikitako gerakina atxiki dituen gastuei aurre egiteko soilik erabili daiteke. 1999ko ekitaldian, zenbait erabakiren bidez, 1998-12-31ko diruzaintzako gerakinaren ondoko aplikazio hauek egin dira (pezetak milioitan):

	Zenbatekoa
Kredituak sartzea, atxikitako gastu eta inbertsioetarako	699,5
1999ko hasierako aurrekontua; klimatizazioko obren kontusaila	246,4
Kredituak sartzea, zenbait inbertsioetarako	138,9
Gerakinarekin finantzaturakoa, guztira	1.084,9

Ikus dezakegunez, 1998ko gerakin osoa erabili da 1999ko gastuak finantzatzeko. Zenbateko doitu kontuan hartuta, ikusten da aurrekontuan aldatetak egin direla eta 38 milioiko finantza-defizita sortu.

## VI. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK UNIBERTSITATE-GIZARTE FUNDAZIOARI

### VI.1. BERE ERAKETA ETA AURREKONTU-KONTABILITATE ARAUBIDEA

Fundazioak 1998an erabilitako kontabilitate plana enpresa pribatuaren kontabilitate plan orokorra izan da, nahiz eta 1999ko ekitalditik aitzina, Fundazioak irabaz asmorik gabeko entitateei aplikatzekoa den plana ezartzeko asmoa duen.

Bestalde, Ogasuneko zuzendari nagusiak apirilaren 27an emandako 513/1997 Ebazpenaren bidez, Fundazioa interes sozialeko deklaratu zelarrik, fundazioei buruzko 10/1996 Foru Legearen araubidea aplikatu behar zaio eta bertan ezarritako eskakizun eta betebeharreri lotu.

Fundazioen tributu-araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Lege honek, "kontabilitate, auditoretza eta aurrekontuei" buruzko artikuluan, kontabilitateko zenbait betebeharrak eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuari informazioa gorri beharra ezartzen ditu.

Xedapen horiek kontuan hartuz, Fundazioaren estatutuen analisiak argi uzten du haren artikulua batzuek ez datozela bat indarrean dagoen legediarekin; bereziki, aurrekontu eta kontabilitate araubideari dagozkion artikulua, horiek kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren gardentasuna eta kontrola baztertzen baitute. Estatutu horietako 24.6 artikulua, halaber, Foru Diputazioaren 1976ko abenduaren 2ko erabakia aipatzen du; baina erabaki hori, Fundazioei buruzko 10/1996 Foru Legeak berriaz baliogabetu zuen eta hori fundazioko

estatutuak onetsi zirenean, indarrean zegoen jadanik.

Gainera, 1998an, Fundazioak 30 milioi jaso zituen NUPen eskutik funtzionamendu gastuei aurre egiteko eta 26,5 milioi, Hizkuntzen Goi Mailako Eskolatik, gastuetarako. Beraz, Dirulaguntzei buruzko Foru Legea aplikatu beharko litzateke eta Unibertsitateko kontu-hartzaileak Fundazioaren kontrol finantzarioa egin beharko luke emandako dirulaguntzak behar bezala erabiltzen direla ziurtatzeko.

*Gomendatzen dugu Fundazioaren kontabilitate eta aurrekontu araubidea irabaz asmorik gabeko entitateen Kontabilitate Plan Orokorraren eskakizunetara egokitzea; NUPeko Kontuhartzaitzak kontrol finantzarioa egitea, Dirulaguntzei buruzko Legeari jarraikiz; Fundazioen tributu araubideari buruzko Legean ezarritako kontrolak egitea eta estatutuak indarrean dagoen araudira egokitzea.*

### VI.2. IBILGETU MATERIALA

Ez dago Fundazioari atxikitako ondasunen inventariorik.

*Gomendatzen dugu Fundazioaren balantzean sartzen diren elementuak bilduko dituen inbentarioa egitea eta bertan, bere ondasun motak, esku-bideak, betebeharrak eta bestelako sailak bereiztea. Horiek zein diren zehaztuko du jarduneko Patronatuaren Batzarrak, beste irizpideen artean, euren kopuruagatik duten garrantziari eta Fundazioaren fondo propioak izateari jarraituz.*

### VI.3. ENPRESETAKO BEKADUNEN GAS-TUAK

Galera eta irabazien kontuko kontzepturik garrantzitsuena da, 222 milioikoa.

Kontu horietan, zenbait enpresa eta erakundetan praktiken bidez prestatzen ari diren bekadunei egindako ordainketak biltzen dira. Fundazioaren eta enpresa edo erakundearen artean praktika horien gauzaketa arautuko duten lankidetzak hitzarmenak sinatzen dira. Enpresak Fundazioari bekaren diru-kopurua ordaintzen dio eta Fundazioak bekadunari, betiere, enpresaren dirua jaso ondoren. Beraz, gastuen kontu horiek dirusarreretan dagokien kontrapartida dute.

Kobraketa eta ordainketen kontrola datu-base baten bidez egiten da; kobraketa bankuko kontu batean jasotzen dira eta ordainketak bankuko transferentzia bidez egiten dira. Sistema hori neketsua da, jasotako kobraketa dirusarreraren egin duen enpresarekin, bekadunekin eta bekari dagoen epearekin identifikatzea eskatzen baitu.



1998ko abenduaren 31n, beka indarrean zuten 375 bekadun zeuden.

*Gomendatzen dugu bekadunen datu-basea hobetzen aurrera egitea eta enplegu zerbitzukoak - rekin nola bateratu aztertzea, mantentzen eta datu sarrera bikoitzak saihesteko.*

#### VI.4. LANGILEEN GASTUAK

36,6 milioiko gastua egiten dute. Horietatik 10,7 Hizkuntzen Goi Mailako Eskolari (CSI) dagozkio, azaroko eta abenduko hilei.

1998ko abenduaren 31n, 7 pertsona ziren lanean Fundazioan: kudeatzaile bat, administrari kudeatzaile bat, lehen mailako ofizial bat, 2 administrari eta praktiketan kontratatutako 2 (proiektuei atxikiak).

Beste 15 langilek kontratua zuten Fundazioarekin eta Hizkuntzen Goi Mailako Eskolan aritzen ziren.

1999ko azaroaren 30ean, 12 pertsona ziren lanean Fundazioan eta 17, Hizkuntzen Goi Mailako Eskolan.

Fundazioko langileak elkarrizketa pertsonalen bidez kontratatu ziren (eskaintza publikorik gabe). Hasieran, aldi baterako kontratuak egin ziren eta 1988an zehar, kontratu mugagabeak egin zaizkie. Hizkuntzen Goi Mailako Eskolaren langileak aldi baterako kontratatzen dira, egunkarian iragarkia jarri ondoren hautapen probak eginez.

Bulego eta Langelen hitzarmena aplikatzen dute, baina ordainsariak Foru Komunitateko Administrazioan indarrean daudenak dira.

#### VI.5. KONGRESUETAKO DIRUSARRERAK

Dirusarrera mota hauen barruan, NUPeko Ingeniaritza elektrikoko Departamentuak antolatutako bi kongresu agertzen dira; hona: Seminario anual de Automática electrónica industrial e instrumentación eta Congreso de la Unión Científica Internacional de Radio 98.

Lehenak 3.923.500 pezetako dirusarrerak eta 2.603.623 pezetako gastuak izan ditu; beraz, 1.309.877 pezetako etekinak izan ditu.

Etekin hori sei irakasleren artean banatu zen eta Fundazioaren aldeko kudeaketa gasturik ez da ageri, ez eta Unibertsitatearen aldeko ehuneko 10eko atxikipena ere.

Bigarrenak 7.320.000 pezetako dirusarrerak eta 5.285.854 pezetako gastuak izan zituen; beraz, etekina 2.034.146 pezetakoa izan da.

Fundazioaren aldeko kudeaketa gasturik ez da ageri, ez eta NUPen aldeko atxikipenik ere. Etekin honela banatu zen:

- Bidaietarako aurrerakinak, El Corte Inglés bidai-agentziari ordainduz. 1.381.413 pezeta.

- Ingeniaritza elektrikoko eta elektronikoko Departamentuaren gastuen fakturak. 231.481 pezeta.

- Departamentu horretarako materiala erostea. 34.765 pezeta.

- Ikastaroarekin zerikusirik ez duten bidaien bestelako gastuak. 386.487 pezeta.

Gure iritziz, bi jarduera horiek, batez ere lehen (irakasleen artean kongresu bateko etekinak banatzea), irregularrak dira NUPeko irakasleei aplikatzekoa zaien estatutuko eta ordainsarietako araubidea kontuan hartuz.

Gure iritziz, kongresu batek sortzen dituen gastuak ordainduta eta horien artean kongresua eman edo antolatzen duten irakasleen ordainsariak eta gastuak sartuta, egon daitezkeen superabitak Fundazioaren kontuetan sartu behar dira berriz.

*Gomendatzen dugu Fundazioak berak antolatzen dituen kongresuak soilik kudeatzea, eta hala -kotan, beti, dirusarrera eta gastuen kontrol egokia egitea eta honelako etekin banaketa irregularrak saihestea.*


Francisco Javier Sesma Masa auditeore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko martxoaren 30ean


Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



**I. ERANSKINA. NUPEKO ORGANIGRAMA, 1998-12-31N**



**II. ERANSKINA. UNIBERTSITATE-GIZARTE FUNDAZIOAREN ORGANIGRAMA, 1998-12-31N**



## **NUPeKo ERREKTOREAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

2000ko martxoaren 21ean jaso dugu, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, erakunde honen gaineko "fiskalizazioaren behin-behineko txostena".

Nafarroako Unibertsitate Publikoak Kontuen Ganbarak egindako fiskalizazioa eskertzen du, egindako txostenean jaso dituen ondorio eta gomendioak kalitatea eta bikaintasuna lortzeko pizgarriak baitira Unibertsitateak abiatutako hobekuntza prozesuaren baitan.

Behin-behineko txostena ikusirik, Nafarroako Unibertsitate Publikoak ondoko **alegazioak** aurkezten ditu.

Kontuen Ganbarak berak Nafarroako Unibertsitate Publikoa izeneko III.I idatz-zatian dioen bezala, 1998ko ekitaldiko kontestuan finantza egoera-orriek buruzko iritzia baldintzatzen duten bi elementu garrantzitsu daude. Hala, 1999an bukatutzat jo daiteke berariaz Administrazio Publikoena den aurretiazko kontrolerako mekanismoen ezarpena; hala nola, kontu-hartzailetza, horren erregelamendua 1999-12-31n onetsi baitzen.

Zentzu horretan, zehaztu beharko litzateke kontu-hartzaileak 1999ko Aurrekontu Itxieran hasi duela bere aholkularitza lana eta kontu-hartzailetzako lana, aldiz, 2000. urtean, 2000 ekitaldirako Aurrekontuaren Betetze Oinarrien 43. artikuluan jasotzen baita.

Halaber, kontabilitateko programa bat abiarazteak eta arau berrietara egokitzeak irizpideekiko ezadostasun eta adostasunak sortzen ditu eta horiek gero konpondu behar izaten dira. 1999ko ekitaldian abiarazi zen eta 2000. ekitaldirako programatu.

### **1. UNIBERTSITATEKO LANGILEAK**

#### **A) Administrazioko eta Zerbitzuetako langileak**

##### **A.1. Ordainsarien araubidea**

a) Egia da Nafarroako Unibertsitate Publikoko administrazioko eta zerbitzuetako funtzionarioak ez direla sartzen Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren letran.

Baina Kontuen Ganbararen behin-behineko txostenean adierazitakoaren aurka, aurrerago aipatutako Arauan berariaz sartu ez izanetik ezin da ondorioztatu Unibertsitateko Erreformaren Legearen (LRU) 49. artikuluan aipatutakoa Estatuko legediari dagokionik hertsiki.

b) Ildo horretatik, esan behar da beharrezkotzat jotzen dela Nafarroako Unibertsitate Publikoan diharduten administrazioko eta zerbitzuetako langileei aplikatzekoa zaien araubide juridikoa eratuko duten iturrien lehentasunari buruzko azterketa serio bat egitea. Lehentasunezko arau hauek aipa daitezke:

b.1. LRUn 49. artikulua zehazten duen araubide juridikoa.

1. LRU eta hura garatzen duten arauak.

2. Aplikatzekoa zaien funtzionarioen legedia eta erkidego autonomoek hura garatzeko ematen dituzten xedapenak.

3. Unibertsitateko Estatutuak.

b.2. Batetik, arauen lehentasunei buruzko erregelak aztertzeak, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko eskumenen banaketak; bestetik, azken horren berariazko eskumenek eta azkenik, Nafarroako Parlamentuan ondoren egindako legediaren garapenak, ondorio honetara garamatzate:

Modu horretan, Nafarroako Unibertsitate Publikorako, LRUn 49. artikuluan aipatzen den funtzionarioen araubidea Nafarroako Administrazio Publikoetakoei aplikatzekoa zaien bera da; termino horrekin administrazio guztiak barneratu nahi dira, Nafarroako Unibertsitate Publikoa barne.

Iritzi horren alde egiten dute adituek, Unibertsitateko irakasle eta aholkulariek eta baita estimazio handiko legelariak ere.

Bestalde, kronologikoki, ezinezkoa gertatzen zen Unibertsitateko administrazioko eta zerbitzuetako langileak Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren aplikazio eremuan sartzea. Arrazoia, araudi bakoitzaren datan aurkitzen da:

• Estatutua: 1983

• LRU: 1985

• Nafarroako Unibertsitate Publikoa Sortzeko Legea: 1987

Zentzu horretan beharrezkoa da Unibertsitate Publikoak legedi eremuetan egin duen berariazko barneratzea jotzea. Barneratze hori Unibertsitate Sortzeko Legearen ondorengoko beste legedi eremuetan formalizatzen hasten da eta ikus daiteke, konparatiboki, Unibertsitatea beste eremu batzuetan ondoren barneratu dela formalki. Hala, aipa daiteke Nafarroako Unibertsitate Publikoaren barneratzea Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Foru Legearen aplikazio eremuan.

b.3. Nafarroako Unibertsitate Publikoan egindako sindikatuen negoziazioaren xedea da aplikatzekoa den funtzionarien foru araubide osoa bete dadila lortzea.

#### **A.2. Kudeatzailearen ordainsariak**

Txostenaren zirriborroak aipatzen du kudeatzaileak 1998an zehar jasotako ordainsariak handiagoak direla lanpostuen zerrendan ekitaldi horretarako zehaztutakoak baino.

Beharrezkoa da zehaztapen hauek egitea:

1. Lanpostuen zerrendan jasotako ordainsariak funtzionarioei soilik dagozkie, izenburuak berak dioen bezala: Nafarroako Unibertsitate Publikoko lanpostuen zerrenda.

2. Gobernuako pertsona bakarreko organoaren kargua bete zuen pertsona, alegia, kudeatzailea, ez zen funtzionarioa; beraz, funtzionarioen lanpostuen zerrendan ezarritakoak ez zuen hura arautzen. Aitzitik, bere araubide juridikoa aplikatzekoa zen lan arloko legedian eta formalizatutako lan kontratuan zegoen.

#### **B. Irakasle eta Ikertzaileak: Osagarriak, 19/1998 Foru Legea**

**B.1.** 19/1998 Foru Legearen aplikazioari eta garapenari dagokionez, ondokoa esan behar da:

1. Foru Legeak Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainsariak zehazten ditu. Hala ere, Gizarte Kontseilua baimentzen du Unibertsitateko irakasle kidegoetako irakasleei, banakako merituengatik, ordainketa kontzeptuak emateko irizpideak onets ditzan.

2. Gizarte Kontseiluak, 309/1999 Erabakiaren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen kidegoetako irakasleei, banakako merituengatik, ordainketa kontzeptuak emateko irizpideak onetsi zituen.

3. Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen kidegoetako irakasleei, banakako merituengatik, ordainketa kontzeptuak emateko irizpideak, onetsi ondoren, Nafarroako Parlamentura igorri ziren, aipatutako Foru Legeko 1. artikuluan ezarritakoa aplikatzeko.

4. Ezarritako irizpideek LRUren 46.2 artikuluan biltzen dituen 3 puntuak kontuan hartzen dituzte; alegia, honako hauek begiratzen ditu soilik:

- Irakaskuntzako eskakizunak
- Ikerkuntzako eskakizunak
- Beste meritu garrantzitsu batzuk

5. Irizpide horiek ez dute banakako araubidea duen osagarri hori orokortzen. Irizpide horiek parametro objektibo batzuk ezartzen dituzte, osagarria emateko edo ez emateko. Hori diskrezionalitatez guztiz urrun dago eta baita arrazoirik gabeko diskriminaziotik.

6. Irizpide horiek irakasleak berak, askatasun osoz, eskatu ondoren eta eskabide bakoitza, bereziki, onartu edo baztertu ondoren aplikatzen dira. Ebaluazio horren emaitza Nafarroako Parlamentura eta Nafarroako Gobernuako Hezkuntza eta Kultura Departamentura igortzen da berriro.

7. Hala eskatu duten irakasle guztiek ez dute jaso ordainsari osagarri hori.

8. Osagarri horiek mantentzeko, ondoren ere ebaluazioak egin behar dira.

#### **B.2. Osagarrien aplikazioa, 19/1998 Foru Legearen aurretik**

Alor horretan Unibertsitatean lehendik zegoen egoera egokitzeak legearekin bat etorri beharra zekarren nahitaez, 19/1998 Foru Legean ezarritakoa betetzeko. Legegilearen agindua betez, Gizarte Kontseiluak ondokoa erabaki zuen:

“1998ko urte naturalean zehar Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleei, konturako entrega gisa ordaindutako zenbatekoak ordaindutat joko dira, Unibertsitatearen Erreformari buruzko Legearen 46.2 artikuluan bildutako irakaskuntza eta ikerketako eskakizunei jarraituz.”

Erabaki hori Nafarroako Parlamentura igorri zen.

## **2. FUNDAZIOA**

Txostenean gomendio gisa ematen da: “NUPeko Kontuhartzaitzak Dirulaguntzei buruzko Legean ezarritako finantza-kontrola egitea.”

Horri buruz argitu behar da, 1998ko ekitaldian ezin zela kontu-hartzaitza hori egin, ez baitzegoen organo hori Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

Kontu-hartzaitzaren sorrera ez da onetsiko 1999-12-31 arte eta kontu-hartzaitza izanen dena ez da sartuko 1999ko otsaila arte. Gainera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Barne Kontrolerako Unitatearen Barne Araubidearen Erregelamendua 1999-12-31n onetsi zen.

Bere 21.b artikulua eskumenak ematen ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoko Aurrekontuen kontura dirulaguntzak edo laguntzak jasotzen dituzten entitateen finantza-kontrola egiteko. Jarraian hori 2000ko ekitaldian hasi beharko da.

Bestalde, gainera daiteke 2000ko aurrekontuaren betetze-oinarrietan, V. tituluaren, dirulaguntzak arautzen dituen 8/1997 Foru Legearen printzipioak biltzen direla. Araudi horrek kasuan kasuko lankidetzaren hitzarmena nahitaez formalizatzea eskatzen du, 2000ko aurrekontuko dirulaguntza emateko.

### 3. ERAIKINAK

V.2.4 puntuan "Inbertsio errealak", "Eraikinak" idatz-zatian, kirol-instalazioak egiteko obren kontratazioa aipatzen da, eta puntu batean zehazki aipatzen da prozedura negoziatuaren bidez adjudikatu zela, publizitateari gabe, 225 milioitan.

Argitu beharra dago aipatzen duen eraikuntza hori multzo handiago baten zati bat dela: Kiroldegia eta Frontoia, 582.000.000 pezetatan. Nafarroako Gobernuaren jadanik hasia zegoen obra hori egiten. Eraikuntza hori obratik ez bereizteak behartzen gaitu, ekonomiaren eragingarritasunerako, obra hori multzo osoa adjudikatua zuen berari adjudikatuz.

### 4. IBILGETUA

V.3.2 Ibilgetua epigrafeari dagokionez, Finantza-inbertsio iraunkorren izeneko idatz-zatian, kontuan hartu behar da honako hau:

Kontu horien nolakotasuna dudarik gabe zordunena da, baina Balantzean epigrafe horretan sailkatu dira egungo Kontabilitate Publikoko Plan Orokor Berriak (NPGCP) dituen defizitak direla-eta.

Beraz, 1998an zehar kontura ordaindutako irakasleen osagarria dela-eta, ezin da aurrekontuko eskubidea aitortu ez eta aurrekontutik kanpoko ere, ez baitago Nafarroako Gobernuaren aitortzen egintzarik eskubide horrekiko. Kontabilitate publikoaren barruan dagoen kontabilitate figurarik gertukoena dirusarrera egiteko konpromisoa izan liteke –gauzatu ez dena– ordena-kontuen bidez kontabilizatuz, 1998-12-31ko Balantzean ager daitezten. Ordena-kontu horiek ez dira NPGCPn biltzen. Beraz, egon zitekeelako aukera hori Balantzean jasota gelditzeko dirusarrera ekonomiko bat aitortu zen, Unibertsitateak ordaindutako gastua konpentsatuz, epe luzerako zordun baten kargura. Hala, NPGCPn ez zegoenez epe luzerako zordun, epe luzerako finantza-inbertsioetako kontuak erabili ziren.

Hezkuntza eta Zientzia Ministeriotik beka direla-eta jaso beharreko dirusarrerari dagokionez, 1998-12-31n eta zehaztasun printzipioari jarraiki, ondoriozta zitekeen urtebete baino epe

luzeragoan jasoko zirela, data hartan oraindik kobratzeke baitzeuden 96/97, 97/98 eta 98/99 ikasturteetako beka, eta 1996-12-31 eta 1997-12-31ko itxiera datetan bi urteko atzerapenez kobratzen diren 176 eta 159,8 milioitako saldoak baitzeuden kontzeptu horregatik. Estatuko Administrazioaren Kontuhartzailatza Orokorak (IGAE) dioenez, "Manual de Contabilidad Pública" liburuari jarraituz (670. orrialdea), aurrekontuko dirusarrerak epe luzera berriz sailkatu ahaliko dira, baina ez du hori egiteko kontabilitate bidea azaltzen eta ez du epe luzerako zordunen konturik aurreikusten. Beraz, NPGCPn zeuden epe luzerako kontuak berriz sailkatu dira, jakinik horiek direla horretarako egokienak. Zenbateko hori kalkulatzeko modua honakoa izan da:

Itxiera data	Ikasturteak	Kobratzeke dauden Hezkuntza eta Zientzia Ministerioetako beka
1996-12-31	96/97	80.805.009
	95/96	95.308.528
	Guztira 1996/12/31	176.113.537
1997-12-31	96/97	80.805.009
	97/98	79.087.837
	Guztira 1997/12/31	159.892.846
Bi urteetako batez bestekoa		168.003.191

1999an zehar kontzeptu horiek kobratu badira (horretarako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak kreditu berezia eman du unibertsitateari ordainketa urteak gutxituz), 1999-12-31ko diruzaintzako gerakinean islatu beharko da, epe luzekotik epe laburrekora aldatuz, eta ez data horretan epe luzerako berriz sailkatuz; izan ere, itxiera horretan beken etorkizuneko kobraketa arautzen da, urtebetekoa baino epe laburragoa ezarritik. Beraz, V.4. epigrafean ez litzateke diruzaintzako gerakina zuzendu beharko, eta bai egintza hori 1999ko itxieran islatu.

### 5. ZORDUNAK ETA HARTZEKODUNAK

V.3.3. Zordunak eta Hartzekodunak epigrafeari dagokionez, zordunen idatz-zatian honakoa esan behar da:

1997ko irakasleen osagarria ordaintzeari dagokionez, eta 1998ko irizpide berari jarraiki, ez dago Nafarroako Gobernuaren aitortzen egintzarik, eta 1997ko aurrekontuko dirusarreratzat jo da. Aurrekontuko zordun hori, diruzaintzako gerakinen parte dena, kobratzeko zailtat jo daiteke, aurreko emaitzen kargura egindako kaudimengabezien hornidurarako zuzkidura baten bitartez, ez baitago Nafarroako Gobernuaren aldetik obligazio

hori aitortzeko egintzarik. Beraz, onartu egiten da V.4. epigrafeko diruzaintzako gerakinaren doiketa.

Dena den, Kontuen Ganbarak onartzekoa litzateke, Unibertsitateak osagarri hori, 19/1998 Foru Legeari jarraikiz, kobra dezakeelakoaren interpretazioa ere barneratzea, 1998ko irakas-kuntzako osagarriaren inguruan berorren eskakizunari dagokionez aipatutakorekin koheren-tzian.

### **KONTUEN GANBARAREN ERANTZUNA NUPEKO ERREKTOREAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI**

Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) errektoreak behin-behineko txostenari egin dizkion alegazioak aztertuta, Kontuen Ganbarak behin-behineko txostenean aipatutakoa berresten du. Txosten hori behin-betikotzat jotzen da eta alegazioen edukia ere, bere osotasunean, bertan sartzen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## **Gelazainen kidegoko funtzionarioen arteko merezimendu-lehiaketaren bidez Nafarroako Parlamentuko Gelazain Nagusiaren burutza-postua betetzeko deialdia**

### **Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda**

Deialdia Mahaiak onetsi eta 2000ko maiatzaren 15eko 40 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, Lehendakaritza honek, aipatu deialdiko 4. oinarrian ezarritakoarekin bat,

ERABAKI DU:

1. Ondoren transkribatzen den onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea.

### **Onartuak:**

Enecoiz Segura, Florencio José  
Ansorena Urriza, Antonio

### **Baztertuak:**

Inor ez.

2. 6.4.1. oinarriak xedatzen duen oroit-idazkia aurkezteko epea 2000ko irailaren 11n bukatuko da, 14:00etan. Oroit-idazkia Parlamentuko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar da gutunazal itxi batean.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko ekainaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.200 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b></p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	--